

antologia eta
aldiriko poemak
GLORIA FUERTES

 BOOKTEGI

itzulpena:
Josu Landa



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

GLORIA FUERTES

antologia eta aldiriko poemak

itzulpena:

Josu Landa

hitzaurrea:

Ainhoa Aldazabal

GLORIA, LORIA

Gloria Fuertes. Emakume indartsua, ahots zakarrekoa, erretzailea, whiskya edaten zuena, lesbiana, telebistan haurrentzako programa batean agertzen zena eta haurrentzat poema txatxu batzuk egiten zituen poeta. Hori da jendeari galdetuta berari buruz entzungo ditugun lehenengo hitzak. Agian bakarrik. Aurreiritziz beteak, klitxeak eta egiak izanagatik Gloria Fuertes nor zen eta bere poesia zer zen azaltzen ez dutenak.

Nik ere ezin izan nion iruditeri horri ihes egin bere liburuak esku artera iritsi eta bere poemak irakurtzen hasi nintzen arte. Eta, orduan, aurreko etiketa oro txiki, mugatu, eskas geratu zitzaizkidan. Harriduraz irakurri nituen Gloria Fuertes poetaren liburuak: “nola da posible orain arte autore honen lana ezagutu ez izana?” izan zen hilabete haietako nire galdera faboritua. “Bua! Hau ezagutarazi egin behar dut, irakurle taldeetan programatu!” Afirmazio obsesiboa.

2017an ehun urte beteko lituzke Gloria Fuertesek eta urtemuga bere irudia goraipatzeko, bere lana ezagutarazteko aproposa izan zen. Liburuak berrargitaratzeko eta berrizteko ere profitatu zuten espainiar estatuko hainbat argitaletzek. Antologia berriak prestatu zituzten, biografia eta obra elkartzen zituzten argitalpen bereziak egin. Eta urte berean, Josu Landak armiarma webgunerako Gloria Fuertes 9 liburutatik aukeratutako 84 poema eman zizkion euskarari, antologia ederra sortuz euskaraz lehenengo aldiz; momentuz bakarra eta esku artean duzuen, orain Booktegin argitaratua.

Antologiarako Josu Landak aukeratutako lehenengo poeman, Ohar biografikoa, autobiografikoa izanik bere bizitza markatu duten hainbat elementu aipatzen ditu: gerrak bere bizitzan izan zuen inpaktua, heriotza, sentitutako bakardadea, maitasun(falt)a, eta idazketa. Bere obra guztian zehar aurkituko ditugun gai batzuk aurreratzen ditu poema honetan Fuertesek eta bere identitatea osatzen duen ezaugarri garrantzitsuena ere aipatzen du, zerbait izatekotan poeta izan baitzen Gloria Fuertes. Guardiako poeta liburutik ateratako hainbat poematan zein idazle bezala egin duen ibilbidean zehar sakon hitz egiten du honi buruz.

Ez dute idazten uzten poeman generoak eta klaseak zeharkatutako identitatea berresten du Fuertesek, emakumea eta pobrea dela hain zuzen ere: (Badakit idazten baina, nire herrian //emakumeei ez diete idazten uzten.) eta (Nire bizitza funtsik gabekoa da // ez dut ezer txarrik egiten. // Pobre bizi naiz.). Identitate hori indibiduala izatetik aparte kolektiboa ere bada eta bere poemetan nitik gurako saltoak egiten ditu etengabe. Gainera, primeran harilkatzen ditu eguneroko elementuak aldarri eta salaketa sozialekin.

Inguratzen duen munduari buruzko hausnarketak egiten ditu poema askotan. Gerra salatzen du behin eta berriz beldurgarria zaigun gaurkotasunarekin: Zer gertatzen da herri palestinarrarekin? // (zin egiten dizuet politikaz ez dudala ulertzen). // Armak modernoak dira, // zauriak zaharrak. Madrilen pobreek bizi duten egoera deskribatzen du Eskaleen sekta poeman besteak beste. Eta Gutuna kultur jendeak mundua aldatzeko duen balioa aldarrikatzen duen poema bat da, pobreen egoera bistaratzeko kultur gileek duten agentzia aldarrikatzen duena.

Tonuetan aberatsa da Fuertes: ironia (arto hibridoa) bikain erabiltzen du eta modu probokatzaillean idazten duenean (Ohartu al zarete edota Denbora- pasa dira adibide bi) bigarren pertsonan egiten du, interpelazio modura. Aldarrikapen eta manifestu kutsua duten poemarik ere aurkituko dugu (Alferrik da), lehenengo pertsona pluralean idatzita dagoena (gu), kolektibotasuna azpimarratzeko; eta erabiltzen duen tonua tristura edo malenkoniatsua bada, lehenengo pertsona singularra erabiltzen du. Maitasuna da, ordea, tonuetan erabiliena eta gizakiari dion maitasunak agintzen du Fuertes en obran. Horregaitik esan izan da bere poesia poesia soziala dela, nahiz eta berak humanista zela defentsatzen zuen. Garrantzitsuena poesia erabilgarria egitea zela zioen berak, herriari zerbait esaten zion poesia idaztea.

Baina denetan estiloa izango da agian Fuertes en ezaugarri bereizgarriena. Alde batetik, poema oso narratiboak idazten ditu eta oso bisualak eta originalak diren irudiak sortzeko gaitasuna du. Horren adibide da Etxeko andrea poema, izan ere, garbitzen, haize berritzen, eskobatzen eta jasotzen duen etxea ni poetikoarena da, bere gorputza da.

Egunerokoa eta politikoa nahasten duenean hibridazio interesgarriak egiten ditu,

Oro har erritmo biziak duten poemak dira, askotan egitura gramatikalen errepikapenak erabiltzen ditu (Ez du batere zerikusirik, Nire bularreko arbolan, besteak beste) eta bestetan zerrendak egiten ditu. Amets makurra poemak bi estrategia hauek batzen ditu adibidez. Poema zuzenak izan ohi dira, argiak. Berak esan ohi zuen bezala, mundu guztiarentzat idatzitakoak dira.

Beste alde batetik, hitz- jolas apartak erabiltzen ditu, ingeniosoak. Amazona bihozbera poeman Fuertes abizenarekin egiten du jolasa adibidez (amazona bihozbera // deituraz soilik fuerte). Honek ukitu jostaria ematen dio Fuertes en obrari, askatasuna dario idazketari. Honekin lotuta, Josu Landak egindako euskarazko itzulpenak gaztelaniazko bertsioa gaingitzen duen adibide bat ere aurkitu dut: eztabaidakit bat daukat. Izenburuak Gloria Fuertes en esentzia osoa duelakoan nago eta ziur nago berari ere izugarri gustatuko litzaiokeela, bete betean asmatu baitu.

Bere poesiak dituen ezaugarri estilistikoak kontuan hartuta, Gloria Fuertes en poesia itzultzea lan konplexua da. Landak, baina, poemek duten freskotasuna eta bat- batekotasun sententzia jaso duelakoan nago. Hiztegi jaso eta zabal batekin batera jatorrizko poemek duten zapora antzekoa

lortu du gehienetan. Bestetan, gustua zertxobait aldatuta ere, irakurlearentzat ederra den efektua sortu du.

Gloria Fuertes emakume indartsua, ahots zakarrekoa, erretzailea, whiskya edaten zuena, lesbiana, telebistan haurrentzako programa batean agertzen zena eta haurrentzat poema “txatxu” batzuk egiten zituen poeta izan zen. Baina bere testuak irakurrita klixé horretatik urruti zegoela esatea soberan dago: emakume errebeldea izan zen, ausarta eta pasionala. Idazle konprometitua izan zen, injustizien kontra eta mundu hobe baten alde poeta izatea baliogarria eta beharrezkoa zelako konbentzimendu osoa zuena. Bere sugarra adierazteko eta besteei kutsatzeko gaitasuna erakutsi zuen, idazteko manera original, bizi eta askearekin. Gloria Fuertesek hunkitu egiten du irakurlea, emozionatu; bihotzarekin idatzitako poemak bihotzerako bide zuzena dute.

Egin dezakegun gauzarik ederrena bere poesia irakurtzen segitzea da.

Ainhua Aldazabal Gallastegi

ANTOLOGIA ETA ALDIRIKO POEMAK

Antología y Poemas del suburbio, 1954

Ohar biografikoa

Gloria Fuertes Madrilen jaio zen
bi egun zituelarik,
nire amaren erditzea aski neketsua izan baitzen
ni bizi nendin ia-ia bera hil zen eta.
Hiru urterekin banekien irakurtzen
eta seirekin jadanik lanak egiten nituen etxean.
Zintzoa nintzen, eta argala,
altua, eta gaixorik maiztxo.
Bederatzi urterekin gurdi batek harrapatu ninduen
eta hamalaurekin gerrak;
hamabostekin ama hil zitzaidan, gehien behar nuenean joan zen.
Dendetan tratu bila ibiltzen ikasi nuen
eta azenario bila herrietara joaten.
Orduantxe hasi nintzen amodio kontuetan,
—ez dut izenik esango—,
horri esker jasan ahal izan nuen auzuneko nire gaztaroa.
Gerrara joan nahi izan nuen, hura geldiarazteko,
baina bidearen erdian geldiarazi ninduten ni.
Gero bulego bat sortu zitzaidan,
eta bertan ergela banintz bezala lan egiten dut,
—baina Jainkoak eta mandatu-mutilek badakite ez naizela ergela—.
Gauetz idazten dut
eta maiz egiten dut mendira.
Neure guztiak aspaldi hil ziren
eta ni neu baino bakartiago nago ni.
Egutegi guztietan argitaratu ditut poemak,
haurrentzako egunkari batean idazten dut,
eta epeka erosi nahi nuke lore natural bat
zenbaitetan Peman-i eman ohi dioten horietakoa.

Nota biográfica

Gloria Fuertes nació en Madrid / a los dos días de edad, / pues fue muy laborioso el parto de mi madre / que si se descuida muere por vivirme. / A los tres años ya sabía leer / y a los seis ya sabía mis labores. / Yo era buena y delgada, / alta y algo enferma. / A los nueve años me pilló un carro / y a los catorce me pilló la guerra; / a los quince se murió mi madre, se fue cuando más falta me hacía. / Aprendí a regatear en las tiendas / y a ir a los pueblos por zanahorias. / Por entonces empecé con los amores, / —no digo nombres—, / gracias a eso, pude sobrellevar mi juventud de barrio. / Quise ir a la guerra, para pararla, / pero me detuvieron a mitad del camino. / Luego me salió una oficina, / donde trabajo como si fuera tonta, / —pero Dios y el botones saben que no lo soy—. / Escribo por las noches / y voy al campo mucho. / Todos los míos han muerto hace años / y estoy más sola que yo misma. / He publicado versos en todos los calendarios, / escribo en un periódico de niños, / y quiero comprarme a plazos una flor natural / como las que le dan a Pemán algunas veces.

Ez dezagun denbora gal

Baldin itsasoa infinitua bada eta sareak baditu,
baldin haren musika uhinetatik irteten bada,
baldin goiz-alba gorria bada eta ilunabarra berdea,
baldin oihana luxuria bada eta ilargia fereka,
baldin arrosa zabaldu eta etxea lurrintzen badu,
baldin neskatzak irri egin eta bizitza lurrintzen badu,
baldin amodioak halako batean ni musukatu eta dardarka uzten banau.

Zer garrantzi du horrek guztiak,
nire auzunean hankarik gabeko mahai bat badago,
zapatarik gabeko ume bat edo kontulari bat eztulka,
maskaren oturuntza bat,
zakurren kontzertu bat,
sarnazko opera bat...

Artega behar genuke hazia senda dadin,
bihotzak bendatzeko eta guztiok kutsatuko gaituen
poema idazteko.

Eta pertsona guztiek besarkatu duten esaldi hori sortu,
ezpatak erauzi behar genituzke poetok,
kolore gehiago asmatu eta aitagureak idatzi.

Tuneletako sarreretan irriak lagatzen hasi,
eta intimoa ez esan, baizik eta korroan kantatu,
ez kantatu ilargiari, ez kantatu nobiari,
ez idatzi hamarrekorik, ez ekoitzi sonetorik.

Beharrezkoa dugu, badakigu nola, boteretsuari oihu egin,
diodan horixe oihu egin, jende anitz badirela bizitzen
biluzgorrian laten azpian eta orru eginez,
eta badirela amak euren seme-alabak egunero orrazten ez dituztenak,
eta badirela aitak goiz jaiki eta teatroa joaten ez direnak.

Apaldutako pertsonak dotoretu euren sorbaldan geure poesia paratuz,
kantatzen ez duenari kantatzea eta laguntzea da sana.

Lukurreruak setiatu, eta pazientzia harrigarritz haiek konbentzitu, nazka sentitu gabe.

Laborantzan garia jo, meategiren batera jaitsi,
astebetez urpekari izan, aterpe-etxeak bisitatu,
kartzelak, hondakinak bisitatu, umekondoekin jolastu,
legenardunen ospitaleetan dantza egin.

Poetok, ez dezagun denbora gal, lan egin dezagun,
bihotzari odol gutxi ailegatzen zaio eta.

No perdamos el tiempo

Si el mar es infinito y tiene redes, / si su música sale de la ola, / si el alba es roja y el ocaso verde, / si la selva es lujuria y la luna caricia, / si la rosa se abre y perfuma la casa, / si la niña se ríe y perfuma la vida, / si el amor va y me besa y me deja temblando. / ¿Qué importancia tiene todo esto, / mientras haya en mi barrio una mesa sin patas, / un niño sin zapatos o un contable tosiendo, / un banquete de cáscaras, / un concierto de perros, / una

ópera de sarna... / Debemos de inquietarnos por curar las simientes, / por vendar corazones y escribir el poema / que a todos nos contagie. / Y crear esa frase que abraza todo el mundo, / los poetas debiéramos arrancar las espadas, / inventar más colores y escribir padrenuestros. / Ir dejando las risas en las bocas del túnel, / y no decir lo íntimo, sino cantar al corro, / no cantar a la luna, no cantar a la novia, / no escribir unas décimas, no fabricar sonetos. / Debemos, pues sabemos, gritar al poderoso, / gritar eso que digo, que hay bastantes viviendo / debajo de las latas con lo puesto y aullando, / y madres que a sus hijos no peinan a diario, / y padres que madrugan y no van al teatro. / Adornar al humilde poniéndole en el hombro nuestro verso, / cantar al que no canta y ayudarle es lo sano. / Asediar usureros, y con rara paciencia convencerles sin asco. / Trillar en la labranza, bajar a alguna mina, / ser buzo una semana, visitar los asilos, / las cárceles, las ruinas, jugar con los párvulos, / danzar en las leproserías. // Poetas, no perdamos el tiempo, trabajemos, / que al corazón le llega poca sangre.

Amets makurra

Nik,
nire eskuokin, seme-alabak egiten ahal dituzten,
arimak armatzen ahal dituzten,
loreak bazkatzen ahal dituzten,
oihalak konpontzen ahal dituzten,
lapitzak mugitu
eta urreliliak idazten ahal dituzten nire eskuokin.

Nik,
heriotza zigorrari higuin diodan honek,
ez dakit zer egingo nukeen, ez dakit zer egingo nukeen.
Bai,
gizateriaren erdia soberan dago:
izoztuak,
Samuel gisakoak,
miatzaileak,
bekozkodunak,
kontulariak,
matxoak,
gerlariak,
pedanteak,
esan ohi dutenak:
—emakumea nire esklaboa.

Nik,
begiratu egingo nieke
bularralderako asmatu ditudan
izpi horien bitartez,
eta mantxadun guztiak,
leizedun guztiak,
gustura aski akabatuko nituzke,
deuserako ez ditugu zitalak,
kakanarruak,
—eurak dira bekaiztiak!

Nik,
txori bakar bat asasinatu baino
moja hil
nahiago dudan honek.
Nik, esku zuri eta kailutsu hauekin,
nik,
heriotza zigorrari higuin diodan honek,
ez dakit zer egingo nukeen.

Mal sueño

Yo, / con estas manos que pueden hacer hijos, / que pueden portar almas, / que pueden pastar flores, / que pueden zurcir telas, / que pueden mover lápices / y escribir crisantemos. // Yo, / que detesto la pena de muerte, / no sé lo que haría, no sé lo que haría. / Sí, / media humanidad es la que sobra: / Los fríos, / Los Samueles, / los sabuesos, / los adustos, / los contables, / los machos, / los guerreros, / los pedantes, / los que dicen: / —la mujer mi esclava. // Yo, / los miraría / por los rayos esos que he inventado / para el pecho, / y a todos los con manchas, / con cavernas, / los iría a gusto eliminando, / para nada nos sirven los perversos, / los canijos, / —son los envidiosos! // Yo, / que prefiero / monja morir / antes que asesinar un simple pájaro. / Yo, con estas manos blancas y callosas, / yo, / que detesto la pena de muerte, / no sé lo que haría.

Sena ibaiko eskaleak

Asko daude.

Mantso ibiltzen dira.

Herren.

Sena ibaian bustitako ogia jaten dute.

Xaboirik gabe egiten dute bizarra Sena bera ispilu hartuta.

Adin guztietakoak daude.

Egunaren zati gehienak etzanda pasatzen dituzte,

pipatzen dute, asko pipatu ere,

eta ezkerreko ideiak ere ez dituzte.

Eta horra harrigarriena,

emakume eskaleak ere badira.

Mendigos del Sena

Hay muchos. / Van despacio. / Cojean. / Comen pan mojado en el Sena. / Se afeitan sin jabón mirándose allí mismo. / Los hay de todas las edades. / La mayor parte del día están echados, / fuman, fuman mucho / y ni siquiera tienen ideas de izquierdas. // Llegamos a lo más sorprendente, / también hay mendigas.

Alferrik da

Alferrik da gauden honetan
arrosek edo txoriek pena eragin diezaguten,
alferrik korridoreetan kandelak piztea,
alferrik ezer debeka diezaguten,
ez hitz egitea esate baterako,
haragia jatea,
liburuak edatea,
tranbiatik ordaindu gabe jaistea,
izaki bat baino gehiago maite izatea,
belarrak erretzea,
egiak esatea,
etsaia maitatzea,
alferrik da ezer debeka diezaguten.

Zirkularrak daude egunkarietan,
izkinetan itsatsitako paperak,
txori frijituak jatea debekatzen dutenak;
eta ez dute debekatzen gizaki erreak jatea,
gizaki biluziak metrailazko hortz-haginez jatea!
Zergatik debekatzen dituzte txoriak zazpigarren eta bosgarren aginduak
erailtzea ontzat ematen dutenek?
Gerrako umeak ere ez dituzte debekatu
eta gizakiak segitzen du haiek saltsa zurian jaten.
«Animaliak Babesteko Elkartea» erridikulua egiten ari da.
Legazkume hobengabeak jatea ere ez dute debekatu,
arkume osotoro samur eta garbiak,
lupia malenkoniatsuak,
eperrak,
eta zer diostazu
Mariquita Perezi buruz,
seiehun pezetako berokiak erosten dizkiote
hainbeste neskaxa egonda panpinarik eta arroparik gabe,
gaixoek lan egiten dute,
zaharrek ez dute erretirorik,
halako kafetegian opioa erosten ahal da,
gaztetasuna saldu egiten da,
hori guztia ofizialki baimenduta dago,
uler eta pentsa ezazue, ezer ez da konpontzen sentimendu onak izanda,
adorea behar da eta oihu egiteko gogoa:
—Gerrak dauden bitartean txori frijituak jango ditut!

Inútil que a estas fechas / nos empiece a dar pena de la rosa y el pájaro, / inútil que encendamos velas por los pasillos, / inútil que nos prohíban nada, / no hablar por ejemplo, / comer carne, / beber libros, / bajarnos sin pagar en el tranvía, / querer a varios seres, / fumar yerbas / decir verdades, / amar al enemigo / inútil es que nos prohíban nada. // En los diarios vienen circulares, / papeles hay pegados en la esquina / que prohíben comer pájaros fritos; / y no prohíben comer hombres asados, / con dientes de metralla comer hombres desnudos! / ¿Por qué prohíben pájaros los mismos que consienten / ejecutar el séptimo y el quinto mandamiento? / Tampoco han prohibido los niños en la guerra / y se los sigue el hombre comiendo en salsa blanca. / La «Protectora de Animales» está haciendo el ridículo. / Tampoco han prohibido comer las inocentes pescadillas, / los tiernos y purísimos corderos, / las melancólicas lubinas, / las perdices, / y qué me dices / de Mariquita Pérez / que la compran abrigo de seiscientas pesetas / habiendo tanta niña sin muñecas ni ropa, / los enfermos trabajan, / los ancianos ejercen, / el opio en tal café puede comprarse / la juventud se vende, / todo esto está oficialmente permitido, / comprended y pensad nada se arregla con tener buenos sentimientos, / hay que tener arranque y ganas de gritar: / —Mientras haya guerras comeré pájaros fritos!

Gizonaren partitzea

Hirurogeita hamar urte asko da,
zahar hiltzen naiz,
lan egiteaz nekatuta,
azken aldian hamasei orduz,
eta nire bizitza osoan ez dut irabazi
baloi bati ostikoak emateagatik
jokalaria batek arratsalde batean irabazten duena.
Oinetatik eztarrira igotzen zaidan
ongizate honi esker, harmonia honi esker,
badakit hiltzen ari naizela,
eta nire emazte babo hori hortxe negarrez,
inoiz ez da gertakizunez jabetu.
Bizimodu ona abiatzen da biontzat.
Nabari dut, kizkurtzen hasi naiz;
heriotza den ama horren erditze berriaz jaio behar dut;
jada ez zaitu inoiz nire eztulak esnatuko goizaldean,
jada ez dut hotzik pasatuko eraikuntza lanetan,
sendatuko dira nire ospelak,
montepioak emango dizunarekin
bahitik atera ahal izango dituzu mantak,
emakumea, konturatu zaitez,
horrelako huskeria batengatik negar egiteko arrazoirik ez dago.

La ida del hombre

Setenta años es mucho, / muero viejo, / cansado de trabajar, / dieciséis horas últimamente, / y no he ganado en toda mi vida / lo que gana un jugador en una tarde / dando patadas a un balón. / Por este bienestar, y esta armonía, / que me sube del pie a la garganta / sé que muero, / y esta tonta de mujer anda llorando, / nunca tuvo idea de los acontecimientos. / Buena vida para los dos se abre. / Noto empiezo a encogerme; / he de nacer de nuevo parido de esta madre que es la muerte; / ya no te despertará mi tos de madrugada, / ya no pasaré más frío en la obra, / se cicatrizarán mis sabañones, / podrás desempeñar las mantas / con lo que te dé el Montepío, / mujer, hazte cargo, no es motivo que llores por tan poca cosa.

Emakume damutua

Aita:

Badira hamabost egun ez dudala inorekin lo egin.

Neure burua salatzen dut,

ez dudalako neure esku hutsez bizimodua atera izan,

beharrezkoa ez zen luxua izan dudalako

eta hiru senar, aita,

...beste hiru emakumeren senarrak zirenak.

Seme-alaba ugari eduki ahal izan nituen.

Ez dut berriro gauza bera egin nahi.

Lanbide horretan erretiroa hartuko dut.

Erreformatorio bat gomendatzen ahalko zenidake?

Zeuok denok oso influentzia onak dituzue.

Ez naiz mezetara joaten eta haragia jaten dut beti.

Neskameei laguntzen diet eta auzuneko behartsuei ez diet askorik ematen.

Hau ere esan behar dizut,

oso zorigaiztokoa naiz.

La arrepentida

Padre: / Hace quince días que no duermo con nadie. / Me acuso, / de no haberme ganado la vida con las manos, / de haber tenido lujo innecesario / y tres maridos, padre, / ...eran maridos de otras tres mujeres. / Podía haber tenido muchos hijos. / No quiero volver a hacerlo. / Me voy a retirar del oficio. / ¿Puede recomendarme algún reformatorio? / Ustedes tienen todos muy buenas influencias. / No voy a los oficios y como carne siempre. / Socorro a las sirvientas y a los pobres del barrio no les llevo gran cosa. / También debo decirle, / que soy muy desgraciada.

HARIA EDATEA AHOLKATZEN DUT

Aconsejo beber hilo, 1954

Ez dute idazten uzten

Egunkari batean lan egiten dut
jefearen idazkaria izan nintekeen
eta garbiketako emakumea baino ez naiz.
Badakit idazten baina, nire herrian,
emakumeei ez diete idazten uzten.
Nire bizitza funtsik gabekoa da,
ez dut ezer txarrik egiten.
Pobre bizi naiz.
Etxean egiten dut lo.
Metroan bidaiatzen dut.
Salda afaltzen dut
eta arrautza frijitu bat, eta gero gaizki esaka ibiliko dira.
Bigarren eskuko liburuak erosten ditut,
tabernetan ibiltzen naiz,
baita tranbietan ere,
antzokietan ordaindu gabe sartzen naiz
eta merkealdiko hondarrekin jantzi.
Bizimodu estrainioa nirea.

No dejan escribir

Trabajo en un periódico / pude ser secretaria del jefe / y soy sólo mujer de la limpieza. / Sé escribir, pero en mi pueblo, / no dejan escribir a las mujeres. / Mi vida es sin sustancia, / no hago nada malo. / Vivo pobre. /
Duermo en casa. / Viajo en Metro. / Ceno un caldo / y un huevo frito, para que luego digan. / Compro libros de viejo, / me meto en las tabernas, / también en los tranvías, / me cuelo en los teatros / y en los saldos me visto. /
Hago una vida extraña.

Ez du batere zerikusirik

Ez, ez du batere zerikusirik,
posible da pobrea izatea
eta ahuntz bat edukitzea.

Posible da eskalea izatea
eta seme-alabatzat zauzkan
ama bat edukitzea.

Ez du batere zerikusirik,
posible da oso aberatsa izatea
eta eskailera ilunpetan egotea.

Posible da oso eroa izatea
eta besteei legenarra
sendatzea.

Posible da oso gaiztoa izatea
eta estankoan nik bezala negar egitea.

No tiene que ver nada

No, no tiene que ver nada, / se puede ser muy pobre / y tener una cabra. / Se puede ser mendigo / y tener una madre / que te llamase hijo. / No tiene que ver nada, / se puede ser muy rico / y tener apagada la escalera. / Se puede estar muy loco / y curarle las lepras / a los otros. / Se puede ser muy malo / y llorar como lloro en el estanco.

Gaueko negar-lantuak

Amets egin nuen nire senean nengoela,
esnatu eta burutik nengoela ikusi.
Amets egin nuen nire senean nengoela,
nire kordetan,
leihoan zabal-zabalik,
eta nigandik zeuden eskegita
gaueko negar-lantuen izarak.
Seme-alaba bat nuela amets egin nuen!
Esnatu eta txantxa zela ikusi.
Esna nengoela amets egin nuen,
esnatu eta lotan nengoela ikusi.

Llantos nocturnos

Soñé que estaba cuerda, / me desperté y vi que estaba loca. / Soñé que estaba cuerda, / cuerda, / tendida en mi ventana, / y en mí habían puesto a secar / las sábanas de mis llantos nocturnos. / ¡Soñé que tenía un hijo! / Me desperté y vi que era una broma. / Soñé que estaba despierta, / me desperté y vi que estaba dormida.

Esan behar dizuet

Esan behar dizuet...
urretxindorrarena
gezurra dela.
Sentitu zuen amodioa
desioa zela.
Galburuak ez duela dantza egiten,
mugitu baino ez da egiten,
haizeak bultzatzen duelako.
Bakarrik nagoela,
entzuten didazuen arren.
A zer mina, min dut, min handia,
nire gorputzetik irteten diren erleek sortua.
Ilargia isiotu egiten denik,
ez da egia.
Pianistak bere neba-arrebak pozoitzen zituen,
eta poetek sukaldatu, jan eta gorrotatu ere egiten dute.
Zuei esateko beharra nuen...
gaur zalapartan nabil.
Maite dudan paisaia zapaltzen dudanean
liztorrez betetzen zait gerruntzea
eta indartsu dauzkat bularrak eta hankak.
Sendatuko naiz!
Bizitzak ergel baten moduan irribarre egiten dit!
... Guztia gezurra da...
Egiari zor,
bakar-bakarrik nago autobusaren zain.

Tengo que deciros

Tengo que deciros... / que eso del ruiseñor / es mentira. / Que el amor que sintió / era deseo. / Que la espiga no danza, / se mueve, / porque el aire la empuja. / Que estoy sola, / aunque me estáis oyendo. / Cómo duelen, me duelen, duelen mucho / las abejas que salen de mi cuerpo. / Que la luna se enciende, / no es verdad. / El pianista envenenaba a sus hermanos, / y los poetas guisan y comen y hasta odian. / Tenía que deciros... / hoy tengo algarabía. / Cuando piso el paisaje que quiero / se me llena el talle de avispas / y tengo fuerzas en los senos y en las piernas. / ¡Voy a curarme! / ¡La vida me sonríe como tonta! / ... Todo es falso... / La verdad, / que estoy sola esperando el coche de línea.

Garbi iezadazu aurpegia, toreroa izango naiz eta!

Garbi iezadazu aurpegia, toreroa izango naiz eta!
Garbi iezadazu kapotea,
ondo eskobatu zezen plaza,
orraztu zezen fina,
lixatu iezazkiozu adarrak.
Ama,
garbi iezadazu aurpegia, toreroa izango naiz eta!

¡Lávame la cara, que voy a ser torero!

¡Lávame la cara, que voy a ser torero! / Límpiame el capote, / barre bien el ruedo, / peina al toro fino, / líjale los cuernos. / ¡Madre, / lávame la cara, que voy a ser torero!

Katuen artzaina zen...

Katuen artzaina zen eta bere erantzuna
isiltasun luzea izan ohi zen.

Teilatuetan pasatzen zituen gauak,
tabako hariekin jolasean.

Katuek eta katemeek so egiten zioten,
lau tximinietan jesarria;
edozerk sortzen zion irria katuen artzainari
edo bere auzo presoari begiratzen zion.

Aditua zen gau kontuetan, eta bazekien
zein ordu zen erlojuari so egin gabe,
eta gora eta behera eramaten zuen katu taldea
teila soroetan zehar.

Zenbaitek diote zoroa dela,
besteek poesiak jo duela,
nik, berarekin harreman handia dudanez, soilik diot
printzesaz jantzitako gizon jakintsua dela.

Era pastor de gatos...

Era pastor de gatos y tenía / una larga callada por respuesta. / Las noches las pasaba en los tejados, / jugando con las hebras. / Los gatos y las gatas le miraban, / apoyado en las cuatro chimeneas; / el pastor de los gatos se reía / por nada, o mirando a su vecina prisionera. / Era entendido en noches y sabía / sin mirar el reloj la hora que era, / y subía y bajaba su rebaño de gatos / por los campos de tejas. / Algunos aseguran que está loco, / otros que está poeta, / yo, que le trato mucho, sólo digo / que es un sabio vestido de princesa.

Nire bularreko arbolan

Nire bularreko arbolan
txori gorri bat dago.

Zu ikusita beldurtu egiten da,
hegalei eraginda eta saltoz.

Nire bularreko arbolan
txori gorri bat dago.

Zu ikusita beldurtu egiten da,
zu zara, zu, txorimalo!

En el árbol de mi pecho

En el árbol de mi pecho / hay un pájaro encarnado. / Cuando te veo se asusta, / aletea, lanza saltos. / En el árbol de mi pecho / hay un pájaro encarnado. / Cuando te veo se asusta, / ¡eres un espantapájaros!

Ohartu al zarete

Zein hotz handia pasatzen duten gaztaina saltzaileek,
zein zaharrak diren katedral ia guztiak,
zein despotak diren zenbaitzuk,
zein alprojak diren ume pobreak,
zein den ebanisten solasa,
zein ondo jantzita doan neska mekanografoa,
zein garestia den guztia.
Nik amodio berri baten gutizia dut,
eta guztiak dira bigarren eskukoak,
eta hitzordutik desordura garesti ateratzen dira.
Zein arrisku handitan dabiltzan igeltseroak,
toreroak eta estatuburuak adina edo gehiago.
Hau lastima, ez zarete ohartu!
Eta hori guztia arriskutsua da,
oso arriskutsua zuen sofa erosoetarako.

Os habéis fijado

En el frío que pasan las castañeras, / en lo viejas que son casi todas las catedrales, / en lo déspotas que son algunos, / en lo golfos que son los niños pobres, / en lo que hablan los ebanistas, / en lo bien vestida que va la mecanógrafa, / en lo caro que cuesta todo. / Yo tengo capricho por un amor nuevo, / y todos son de segunda mano, / y entre citas y flautas salen caros. / En el peligro que corren los albañiles, / tanto o más que los toreros y que los jefes de Estado. / ¡Qué lástima, no os habéis fijado! / Y todo esto es peligroso, / muy peligroso para vuestros cómodos divanes.

Gaur ez naiz ausartzen

Ez naiz ausartzen zure leiho ertza zapaltzen
ez ditzadan zure harriak artegatu eta nire besoak mindu.
Ez naiz ausartzen zure begietan bilatzen
ez ote den aurkitu gabe geldituko bilatzen dudana.
Ez, ez dut zu orrazteko adorerik.
Eta kasik ezin zaitut pasilloan kausitu.
Utzizkidazu zure eskuak...
atzamarrak zenbatzeko baino ez da.
Utzidazu zure arima,
neurriak hartzeko baino ez da.

Hoy no me atrevo

No me atrevo a pisar por tu postigo / por si inquieto tus piedras y mis brazos se duelen. / No me atrevo a buscar por tus ojos / por si no hallo en ellos lo que busco. / No, no tengo valor para peinarte. / Y apenas puedo encontrarte en el pasillo. / Déjame tus manos... / es sólo para contar tus dedos. / Permíteme tu alma, / es sólo para tomar medidas.

Emakume pobrea

Hain pobre-pobrea naizenez
ama ere ez dut.
Hain pobre-pobrea naizenez
inor ere ez dut.
Ez dut berokirik
sorbaldi itsasteko.
Ez dut edertasunik
gizonei itsasteko.
Hain pobre-pobrea naizenez
ezpainik ere ez dut
ahoari itsasteko.
Ba al duzue samurtasunezko begiradarik?
Ardo apur bat soberan al duzue kopan?
Arrain puskatxo bat,
gose naiz eta...!
Besterik ez bada begirada bat,
hain pobre-pobrea naizenez
izara zuririk ere ez dut...
baina hori ere ez izanagatik ez zaitez joan.
Ez dut sorbaldarik gustura negar egiteko.
Ez dut gizonik hitzak josi ahal izateko.
Esku batzuk, otoi!,
nire esku luze hauentzat,
bihotza gaixorik baitaukat
eta ez dut hari emateko koilarakada bat ere.

La pobre

Soy tan pobre tan pobre, / que no tengo ni madre. / Soy tan pobre tan pobre, / que no tengo ni nadie. / Que no tengo ni abrigo / que llevarme a los hombros. / No tengo ni belleza / que llevarme a los hombros. / Soy tan pobre tan pobre, / que no tengo ni labios / que llevarme a la boca. / ¿Tenéis una mirada de ternura? / ¿Os sobra algo de vino de la copa? / ¡Un poquito de pez, / que tengo hambre...!. / Aunque sólo sea una mirada, / soy tan pobre, tan pobre, / que no tengo una sábana blanca... / pero si no la tengo no te vayas. / No tengo un hombro donde llorar a gusto. / No tengo un hombre donde zurcir palabras. / Unas manos, por caridad, / para las más largas, / que tengo a mi corazón enfermo / y no tengo que darle una cucharada.

Eztabaidakit bat daukat

Eztabaidakit bat daukat.
Nire eskuaren azpian tigre bat daukat,
hoge azazkal baino ez ditut, hogei urte baino ez,
eta nire eskuineko begitik irteten den argi bat.
Badaukat piano bat ere, gainean loreontziak dituen.
Gauetz erabili ahal izatearren
zenbait gauza daramazkit gainean
eta azkar orrazten dudan adats liso bat.
Horra tragikoa, horra tragikoa:
ikusten al duzue nolako pausoez egiten dudan dantza?
Ba ez dira nireak.
Kontua da beti dagoela triste dagoen ume bat nire tabakoan.

Tengo un no sé sí...

Tengo un no sé sí. / Debajo de mi mano tengo un pequeño tigre, / tengo sólo veinte uñas y sólo veinte años / y una luz que me sale de mi ojo derecho. / También tengo un piano, con floreros encima. / Para usarlas de noche / llevo en mí varias cosas / y una melena lisa que me peino deprisa. / Lo trágico, lo trágico / ¿es que véis estos pasos con que danzo? / Pues no son míos. / Es que hay un niño siempre muy triste en mi tabaco.

Gutuna

Pobre maiteok:

Jaso nituen zuen gutun guztiak,
idatzi ez zenizkidatenak ere heldu ziren,
etxe merkeetatik datorren haizean zehar,
bazter herrixkatik datorren haizean zehar,
lantegitik datorren haizean zehar,
meatzetik datorren haizean zehar,
txalupatik datorren haizean zehar,
herritar xume hautatuok, badut gertatzen zaizuen guztiaren berri.

Lanbidea duzuenok,
aldamiaoa zapaltzen duzuenok,
erremintarekin modu txoroan zauritzen zaretenok,
Valentziako uretan zabiltzatenok,
arroza edo txitxirioak egosten dituzuenok,
txalupan egunez eta gauez lo egiten duzuenok
guri arraina ekartzearen.

Zuen gutunak jaso nituen, nekazariok,
zuen salmoak jaso nituen, mahats-biltzaileok,
eta baita zuen albisteak ere, arrantzaleok,
badut egiten duzuen guztiaren berri eta gertatzen zaizuen dut bihotzean,
jakinarazitzat jotzen dut soldata batzuk igo direla
eta hala ere ez zaizuela iristen;
eta sua eta ura kokotsaren parean dituzuela
eta ahotsik ez zaizuela iristen nirea ez bada,
baina goizero lana iristen zaizuela
eta osasuna gorputzera
eta beste seme-alaba bat, zorionak.

Esaten didazuenaz nik ezin dut ezer egin.
Soil-soilik letra-jendeak horretan ari direla gogorarazi,
marrazten zaituztela, nire pobreok, ulertzen zaituztela,
horretaz guztiaz arduratu nahi dutela, zuen gutun laburretan diozuen guztiaz,
eta ministroei idatziko dietela.

Eta gaurkoz besterik ez, lagun pobreok,
bizitzako onena zarete, hura goratzen dutenak.
Zuek ere barne zarete, bulegora joan ohi zaretenok,
barazkiak saltzen dituzuenok eta etxeak eraikitzen dituzuenok,
autoak gidatzen dituzuenok, urez erregadiatzen duzuenok,
milaka lanbidetako pobreok ez zaudete bakarrik;
hona hemen kantatzen dizuen poeta bat,
gero beste batzuk etorriko dira.

Queridos pobres: / Recibí todas vuestras cartas, / las que no me habéis escrito llegaron, / por el aire que viene de las casas baratas, / por el aire que viene de la aldea, / por el aire que viene de la fábrica, / por el aire que viene de la mina, / por el aire que viene de la barca, / elegidos ciudadanos sencillos, sé todo lo que os pasa, / Los que tenéis oficio, / los que pisáis andamio, / los que con la herramienta os herís a lo tonto, / los que andáis por el agua de Valencia, / los que hacéis el arroz o los garbanzos, / los que dormís de día y por la noche / en la barca a cogernos el pescado. / Recibí vuestras cartas labradores, / vendimiadores recibí vuestros salmos / y pescadores también vuestras noticias, / sé todo lo que hacéis y lo que os pasa siento, / quedo enterada de que algunos jornales han subido / y aún nos os llega; / y os llegó como sé el agua al cuello, / y la voz nunca os llega a no ser mía, / pero os llega el trabajo a la mañana / y la salud al cuerpo / y el hijo otra vez, enhorabuena. / Yo no puedo de lo que me decís haceros nada. / Tan sólo recordaros que ya el hombre de libros está en ello, / que os dibuja mis pobres, que os entiende, / que se quiere ocupar de todo eso, que decís en vuestras cortas cartas, / y escribirán a los ministros. / Y nada más por hoy pobres amigos, / lo mejor de la vida sois, lo que la alza. / También entráis vosotros los que vais a oficina, / los que vendéis verduras y los que hacéis las casas / los que guiáis los coches, los que regáis con agua, / pobres de mil oficios no estáis solos / aquí un poeta os canta, / luego vendrán más.

Ez dakit zergatik kexatzen naizen...

Ez dakit zergatik kexatzen naizen bakarrik egoteagatik, azkenean bakarrik.
Eta errautsa lurrera botatzearen plazera,
inork errietan egin gabe.
Eta ogia saltsan bustitzea
eta kafe hondarrak edatea,
eta eskuaren gainarekin ahora garbitzea,

alderraiari kantatzea halako batean ausarta izan zelako,
musuak akabatzen joatea zorriak balira bezala,
ardo zuria edatea,
zenbait esaldi ahoskatzea
zenbait berba esatea,
egunen batean zerrendatik ezaba zaitzaten arriskatzea...
Ez nuke serio egon behar
bizi nahi nukeen bezala bizi bainaiz,
kontu bakarra da larruazalean
nolabaiteko azkura arina antzeman ohi dudala aldian behin.

No sé por qué me quejo...

No sé por qué me quejo porque al fin estoy sola. / Y el placer de tirar la ceniza en el suelo, / sin que nadie te riña. / Y untar pan en la salsa / y beberse los posos, / y limpiarse la boca con el dorso de la mano, // cantar al vagabundo porque al fin fue valiente, / ir matando los besos como si fueran piojos, / beber blanco, / pronunciar ciertas frases / decir ciertas palabras, / exponerte a que un día te borren de la nómina... / No debiera estar seria / pues vivo como quiero, / sólo que a veces tengo, / un leve sarpullido.

Nire auzokoa

Igeltseroa bere lanalditik itzuli zen
bere soldata mendrearekin eta bere puntuekin.
Dendara jaitsi ziren ogi-irin bila,
morokila prestatu zuten urdaiarekin,
leihoan hozten jarri eta
eltzea etxartera erori zen.
Langileak eztula egin zuen:
—Gloria enteratzen bada,
gaur gauean Poesia afalduko dugu.

Mi vecino

El albañil llegó de su jornada / con su jornal enclenque y con sus puntos. / Bajaron a la tienda a por harina, /
hicieron unas gachas con tocino, / pusiéronlo a enfriar en la ventana, / la cazuela se cayó al patio. / El obrero
tosió: / —Como Gloria se entere, / esta noche cenamos Poesía.

GUZTIAK BELDURTZEN DU

Todo asusta, 1958

Guztiak beldurtzen du

Beldurtzen du lorea goiz zimeltzeak.
Beldurtzen du asko maite izan eta besteek zu maitatzeak.
Beldurtzen du ume batek heldu aurpegia izateak,
beldurtzen du gauak...
arrazoirik gabe dardarka hasteak,
arrazoirik gabe irri egiteak asko beldurtzen du.
Beldurtzen du lorategietan bakea
koloretako bere belarriz agertzeak,
beldurtzen du maiatza izanda eguraldi ona egiteak,
beldurtzen du batez ere gertatu ahal izateak,
beldurtzen du osoa denak, litekeen horrek,
argi gehiegiak, koldarkeriak,
ezkontzen den jendeak, ekaitzak,
sortzen diren haizeak eta euriak.
Gauetz inork egiten ez duen zaratak
—aulki hutsak kirrinka egiten du beti—,
beldurtzen du gaiztakeriak eta alaitasunak,
oinazeak, sugeak, itsasoak, liburuak,
beldurtzen du zoriontsu izateak, beldurtzen du suak,
izutzen du bakeak, zerbaiten susmopean beti,
beldurtzen du gariak oro, pobreek oro;
onena, aulkian ez jesartzea.

Todo asusta

Asusta que la flor se pase pronto. / Asusta querer mucho y que te quieran. / Asusta ver a un niño cara de hombre, / asusta que la noche... / que se tiemble por nada, / que se ría por nada asusta mucho. / Asusta que la paz por los jardines / asome sus orejas de colores, / asusta porque es mayo y es buen tiempo, / asusta por si pasa sobre todo, / asusta lo completo, lo posible, / la demasiada luz, la cobardía, / la gente que se casa, la tormenta, / los aires que se forman y la lluvia. / Los ruidos que en la noche nadie hace / —la silla vacía siempre cruje—, / asusta la maldad y la alegría, / el dolor, la serpiente, el mar, el libro, / asusta ser feliz, asusta el fuego, / sobrecoje la paz, se teme algo, / asusta todo trigo, todo pobre, / lo mejor, no sentarse en una silla.

Saiatu behar dugu gezurrik ez esaten

Saiatu behar dugu gezur asko ez esaten.
Badakit batzuetan gezurrak esaten ditugula hildako bat ez eragiteko,
seme-alaba bat ez egiteko edo gerra bat saihesteko.
Umetan azukrezko gezurrez esaten nituen gezurrak,
lagunei esaten nien: —Bainugela daukat—
—eta nire etxea pobrea zen, komuna kanpoan zuen—.
—Nire aita ingeniaria da —eta kedar-garbitzailea baino ez zen,
baina niretzat beti ingeniari ingeniotsua zen!
Kostatu zitzaidan gezurra erauzteko ohitura,
estaltzen nauen janzki egiadun hau ehundu nuen,
batzuetan biluzik joaten naiz.
Ordutik hitz egin gabe egoten naiz egun askotan.

Hemos de procurar no mentir

Hemos de procurar no mentir mucho. / Sé que a veces mentimos para no hacer un muerto, / para no hacer un hijo o evitar una guerra. / De pequeña mentía con mentiras de azúcar, / decía a las amigas: —Tengo cuarto de baño— / —y mi casa era pobre con el retrete fuera—. / —Mi padre es ingeniero — y era sólo fumista, / pero yo le veía ingeniero ingenioso! / Me costó la costumbre de arrancar la mentira, / me tejí este vestido de verdad que me cubre, / a veces voy desnuda. / Desde entonces me quedo sin hablar muchos días.

Egunkarietatik

Eskularru bat luzeetakoa,
zazpi metro soka,
bi txirrika alanbre,
hil koroa bat,
lau iltze,
bost duro zilarrezko
motor balbula bat
emakumezkoen idunekoa
gizonezkoen betaurrekoa
umeentzako jostailua,
parrokiako txilina
komentuko beiratea,
erloju baten pendulua
argazki album bat
berunezko soldadutxoak
igeltsuzko San Antonio bat
bi hortzorde
idazteko makina baten ele letra
eta medailoi bat,
horixe guztia zuen ostrukak bere estomagoan.

De los periódicos

Un guante de los largos, / siete metros de cuerda, / dos carretes de alambre, / una corona de muerto, / cuatro clavos, / cinco duros de plata / una válvula de motor / un collar de señora / unas gafas de caballero / un juguete de niño, / la campanilla de la parroquia / la vidriera del convento, / el péndulo de un reloj, / un álbum de fotografías / soldaditos de plomo / un San Antonio de escayola / dos dentaduras postizas / la ele de una máquina de escribir / y un guardapelo, / todo esto tenía el avestruz en su estómago.

Ordubete da bizitza

Ordubete da bizitza,
ia ez dizu denbora ematen guztia maitatzeko,
guztia ikusteko.
Bizitzak goroldio gustua du,
gehiagoren gogoz gelditzen zara eman zitzaizkizun eskuetan
esku gehiago ez badituzu.
Azkenean toki arriskutsu bat aukeratzen dugu,
petril bat, bide bat,
aizto baten punta gaua pasatzeko.

La vida es una hora

La vida es una hora, / apenas te da tiempo a amarlo todo, / a verlo todo. / La vida sabe a musgo, / sabe a poco
la vida si no tienes / más manos en las manos que te dieron. / Al final escogemos un lugar peligroso, / un pretil,
una vía, / la punta de un puñal donde pasar la noche.

Izango duzu zure lur saila

Zaldiak denetik du hiltzen denean,
zartailua ezabatu egiten da haren bizkarretik!
Ez zaitez larrimindu, gizona,
guztiak, ezerk ez baitu irauten.
Egun hori iristen denean,
sosegu handieneko egunean,
orduak,
beti izango da arbola bat
lau ohol adeitsu eskainiko dizkiguna;
oso pobrea izanagatik, hala izan bazara ere
azkenean arra bete lur emango zaizu
zeure burua lasai desegin ahal izan dezazun.
Izango duzu zure lur saila
eta loreak ere izango dituzu,
beste hildakoei euren senideek eramandakoak.

Tu parcela tendrás

El caballo al morir tiene de todo, / el látigo se borra de su espalda! / No te acongojes hombre, / que todo, nada dura. / Cuando llegue ese día, / el de mayor sosiego, / para entonces, / siempre habrá un árbol / que nos ofrezca amable cuatro tablas; / por pobre que seas, que hayas sido, / al final se te dará palmo de tierra / para que puedas tranquilo deshacerte. / Tu parcela tendrás / y podrás disponer de aquellas flores, / que a otros muertos les lleven su familia.

Munduko gobernarietako abisua

Txit Prestuak Zaretenongana jotzen dut
zuei esateko nire auzunean izurria dagoela,
eskale guztiak zubi apurtuaren azpira
etorri direla babes bila,
—beroa iristen denean eromena izango da—.
Badirudi zerbait antolatu nahi dutela
etxe bat ematen ez dien Alkatearen kontra,
gaixorik daude eta kobazuloetan lo egiten dute
eta puskatxoak erortzen zaizkie lotan daudenean.
Diote gauren batean zuen hilobietara
joango direla... loreak eramateko
eta nik abisatu egiten dizuet Txit Prestuak Zaretenoi
bakezalea naizelako eta ez naizelako ausartzen
hori isilaraztera zuzen ari direla uste dudana arren.

Abisatzen dizuet Txit Prestuoi arriskuan zaudetela
jende hori mozkortuta dagoelako.
Ezer ez du balio eman berri den bandoak,
ezer ez tabernetan ardoa ez zerbitzatzeak,
ezer ez dendetan ogia egoteak,
ezer ez desfileak debekatzeak,
ezer ez berbena geldiarazteak,
hobe duzue eskaleak eurak bertan behera uztea.

Aviso a los gobernantes del mundo

Me dirijo a Vuestras Ilustrísimas / para deciros que en mi barrio hay peste, / que se han venido todos los mendigos / a refugiarse bajo el puente roto, / —cuando venga el calor no habrá quien pare—. / Parece ser que quieren armar una / contra el Alcalde que no les da una casa, / están enfermos y viven en las cuevas / y les caen montocitos cuando duermen. / Dicen que van a ir en una noche / a vuestra tumba a colocarlos... flores / y yo lo aviso a Vuestras Ilustrísimas / porque soy pacifista y no me atrevo / a silenciarlo aunque lo creo justo. // Os aviso Ilustrísimas peligro corréis / porque esta gente está borracha. / De nada vale el bando recién dado, / de nada no dar vino en las tabernas, / de nada que haya pan en el comercio, / de nada que prohíban los desfiles, / de nada que recojan la verbena, / es mejor que supendan los mendigos.

Derrigorrezkoa da...

Derrigorrezkoa da mitoak edukitzea
eta nik gustura desobeditzen dut,
gustura lisatzen ditut blusak
denbora dudanean,
lagunekin solastatzea lehentasunezkoagoa da eta.
Derrigorrezkoa da arropa onez janztea,
egintza onez —ez da hain interesgarria—.
Derrigorrezkoa da leihotik burua ez ateratzea,
gera antolatuko balute bizirik egon behar duzu eta.
Derrigorrezkoa da iskanbilak daudela isilaraztea
lantokitik bota zaitzaketelako,
eta egia badiozu ziega prestatzen dizute,
negar-lantua prestatzen dizute, derrigorrezkoa delako...
pertsonen moduan sufritzea,
norbaiti ezinikusia izatea,
pedantea losintxatzea,
tenpluetan galtzerdiak janztea,
seme-alaba dezente izatea,
bihar bueltatzea,
etsaiak edukitzea,
hori guztia derrigorrezkoa da,
eta gainera zoruan tu egitea debekatzen dizute.

Es obligatorio...

Es obligatorio tener mitos / y yo gustosa desobedezco, / gustosa me plancho las blusas, / cuando tengo tiempo,
/ porque antes es hablar con los amigos. / Es obligatorio presentarse con buenas ropas, / con buenas obras —no
interesa tanto—. / Es obligatorio no asomarse a la ventanilla, / porque tienes que estar vivo si organizan la
guerra. / Es obligatorio silenciar que hay tumultos / porque pueden echarte del trabajo, / y si tantas verdades la
celda te preparan, / te preparan el llanto, porque es obligatorio... / sufrir siendo persona, / guardar rencor, /
adular al pedante, / llevar medias en los templos, / tener bastantes hijos, / volver mañana, / tener enemigos, / es
obligatorio todo esto, / y encima te prohíben escupir en el suelo.

EZ TIROZ, EZ POZOIZ, EZ LABANAZ

Ni tiro, ni veneno, ni navaja, 1965

Lagun eta Babesleen Elkartea

Espektroen Mamuen eta Iratxoen
Lagun eta Babesleen Elkartea.

Gizon-andre txit zeuonak:
Nahigabe handiz jakinarazten dizuet
etxean badudala nahi duzuenerako
mamu txiki bat
pare bat defunturen adinekoa,
polonieraz mintzo dena eta
Genghis Khanen espiritua dela dioena.

Arrantzako izara zuriaz jantzita dago
Uranioko kotxe-plakarekin
eta tolesean urradura bat dauka
baina ez naiz ausartzen hura jostera
ez delako inoiz geldirik egoten.

Arrastirian agertu ohi da,
edota goizaldean eguna laino badago
eta gauez nire sorbaldetan zamalkatzen da
eta buruan sartzen zait intxaurrak kraskatzera.
Nire txakurrarekin ezin okerrago moldatzen da
eta nerbioak airean nauka ni.
Esaten du ez dela joango gogoak ez diolako ematen.

Egunero esnea gainez eginarazten dit,
ezkutatzen dizkit eskuila, bakea eta artaziak;
inoiz loak hartzeko zortea badut
ganbaran uluka ibiltzen da eztarria urratu beharrez.
Erregu egiten dizuet bidali behar duzuen bidal dezazuen,
eta nire pisutxo xumetik
izaki hori eraman dezazuen,
txera har diezaiodan baino lehen.

Sociedad de Amigos y Protectores

Sociedad de Amigos y Protectores / de Espectros Fantasmas y Trasgos. // Muy señores suyos: / Tengo el disgusto de comunicarles / que tengo en casa y a su disposición / un fantasma pequeño / de unos dos muertos de edad, / que habla polaco y dice ser el espíritu del Gengis Kan. // Viste sábana blanca de pesca / con matrícula de Uranio / y lleva un siete en el dobladillo / que me da miedo zurcírsele / porque no se está quieto. // Aparece al atardecer, / o de mañana si el día está nublado / y por las noches cabalga por mis hombros / o se mete en mi cabeza a machacar nueces. / Con mi perro se lleva a matar / y a mí me está destrozando los nervios. / Dice que no se va porque no le da la gana. // Todos los días hace que se me vaya la leche, / me esconde el cepillo la paz y las tijeras; / si alguna vez tengo la suerte / de conciliar el sueño, / ulula desgañitándose por el desván. / Ruego a ustedes manden lo que tengan que mandar, / y se lleven de mi honesto pisito / a dicho ente, / antes de que le coja cariño.

Lantegia eta bere atea

Gurutzatzen dugun lehen ate hau
gorriz pintatuta dago.

Zauri sakonean zehar irteten gara
kobazulo baten sakonetik,
non bi langile tristeren amodioak,
nazkak edo ohiturak ekoizten gaituzten
segundotako lanaldi lehergarrian;

akastun irteten gara
puska eginda gaude
puska txiki eginda gaude
eta batzuetan presaka
eginda gaude,
denborarik ez zegoelako piezen ertzak karraskatzeko,
xehetasunak ongi doitzeko...
zeharo eteteko
tristuraren zilbor-hestea.

La fábrica y su puerta

Esta primera puerta que cruzamos / pintada está de rojo. // Por honda herida salimos / de las profundidades de una cueva, / donde el amor el asco o la costumbre / de dos obreros tristes nos fabrican / en una agotadora jornada de segundos; // salimos con defectos / estamos hechos trozos / estamos hechos trizas / y estamos hechos / a veces de prisa, / que no dio tiempo a rasparnos la rebarba, / a definirnos bien... / a cortarnos del todo / el cordón umbilical de la tristeza.

Urteberri

Edozein urtetako urtarilaren lehen egunotan,
amodioak eta izenak hautatuta ditudan honetan,
nire bizitzaren erdian hezurak umotuta ditudan honetan
nire buruari hotsandiz PROMESTEN DIOT larregi ez sufritzea.

Jotzen banaute, jo nazatela,
ituan jotzen badidate, bego itua,
eta Zozketan galtzen badut,
jokatu dudalako izango da.

Penek izorratzen naute,
alergia diot haserreari,
kopeta ilunduta
fetu arraroa ematen dut.
Urte berri alargun berri
(Horra topiko ezin sanoagoa!)
Printza berriak argitzen du
nire igogailu itzalia
desorduetan igotzeagatik itzalia
beti okupatua egoteagatik
larrimina poemetan gauzatzeagatik
alferrik ergelarena egiteagatik
nire insomnioak tatxetez
eta iltzez betetzeagatik itzalia.

Nire bizitzaren erdian
irribarre zabal-zabalez irekitzen dut atea,
—ez baitut pasilloetan ibili nahi
bihotza pipiak janda—.

PROMESTEN DUT ostera ere
ez zaituztedala nire lantuan itoko,
ez dudala ostera ere sufrituko
oso ongi justifikatutako
arrazoi batengatik ez bada.

Año nuevo

A primeros de enero de un año cualquiera, / con amores y nombres ya seleccionados, / con los huesos maduros a mitad de mi vida / me PROMETO solemne no sufrir demasiado. // Si me pegan, que peguen, / si me aciertan, me han dado, / y si pierdo en la Rifa, / será porque he jugado. // Me fastidian las penas, / me da alergia el enfado, / con el ceño fruncido / parezco un feto raro. / Año nuevo viuda nueva / (¡Qué tópico más sano!) / Nueva luz ilumina / mi ascensor apagado / de subir a deshora / de estar comunicando, / de hacer la angustia en verso / de hacer el tonto en vano, / de sembrar mis insomnios / de tachuelas y clavos. // A mitad de mi vida / de par en par sonrisa y puerta abro, / —que no quiero acabar por los pasillos / con el corazón apollado—. // PROMETO no volver / a ahogarse en mi llanto, / no volver a sufrir, / sin un motivo / muy justificado.

GUARDIAKO POETA

Poeta de guardia, 1968

Guardiako poeta

... Beste gau bat gehiago! Hau asperdura!
Gutxienez norbaitek deituko balu, baleza, balezake!
... Atezaina! bere biloba erditzen ari omen,
eta ni emagina naizela oroitu bide du...
Edo amodioz mozkortutako delirium tremendista bat...

edo andereñoren bat eragindako abortuarekin
edo prostitutaren bat labana izartean
edo kinkiren bat ihes eginda...

edo zeinahi ezagun azkenean suizidatzea erabaki duena...
edo nazioarteko konferentzia...
(horixe bai bonba —bakezalea—).

Edo irratia azkenean esatea:
«Vietnamgo gerra amaitu da!».
«Ezagutu berria da bakarrik egotearen arrazoia».
Edo «minbizia desestali da».

Eta inork ez du jotzen, edo erretzen, edo izozten edo deitzen
gau honetan,
non,
ia guztietan bezala,
ni guardiako poeta naizen.

Poeta de guardia

... ¡Otra noche más! ¡Qué aburrimiento! / ¡Si al menos alguien llamase llamara o llamaría! / ... ¡La portera! que si su nieta pare, / y recordase que soy puericultora... / O un borracho de amor con delirium tremendo... // o alguna señorita de aborto provocado / o alguna prostituta con navaja en la ingle / o algún quinquí fugado... // o cualquier conocido que por fin decidiera suicidarse... / o conferencia internacional... / (esto sería bomba —pacifista—). // O que la radio dijera finamente: / « ¡La guerra del Vietnam ha terminado! » / «El porqué de estar solo ya se sabe.» / O «el cáncer descubierto». // Y nadie suena, o quema, o hiela o llama / en esta noche, / en la que, / como en casi todas, / soy poeta de guardia.

Garesti da poeta izatea

Garesti da, jaun-andreok, poeta izatea.
Hara non jendea lasai-lasai oheratzen den
—lanaren ondoren logura handia izaten baita—.
Esklabo legez lanean etxera bueltan,
sukalde gabeko mahai aurrean jesarri,
gertatzen denaz gogoeta egiten dut.
Zalantzak ziztatuta denak izutzen nau;
pixkanaka itzalek irensten naute
aharrausi gabe pasatzen zaizkit orduak
loak ikara hartzen dit ihes egiten dit
—egunsentia heltzen zait idatzi eta idatzi—.
Eta gero lagunak errezitalak antolatzen dizkirate,
eta hara noa eta ergel batek bezala irakurtzen dut,
eta jendeak ez daki honetaz guztiaz ezer.
Linfa galtzen dudala nire idazkietan,
errimaren arramatik jausten naizela
larriminaren lubakiei egiten diedala eraso
mamuek beren heroi izendatzen nautela,
kostata hartzen dut arnasa amaitutakoan.
Garesti da, jaun-andreok, poeta izatea.

Sale caro ser poeta

Sale caro, señores, ser poeta. / La gente va y se acuesta tan tranquila / —que después del trabajo da buen sueño—. / Trabajo como esclavo llego a casa, / me siento ante la mesa sin cocina, / me pongo a meditar lo que sucede. / La duda me acribilla todo espanta; / comienzo a ser comida por las sombras / las horas se me pasan sin bostezo / el dormir se me asusta se me huye / —escribiendo me da la madrugada—. / Y luego los amigos me organizan recitales, / a los que acudo y leo como tonta, / y la gente no sabe de esto nada. / Que me dejo la linfa en lo que escribo, / me caigo de la rama de la rima / asalto las trincheras de la angustia / me nombran su héroe los fantasmas, / me cuesta respirar cuando termino. / Sale caro, señores, ser poeta.

Erdituz hil olatuak bezala

Erdituz hil olatuak bezala
itsasoak iraun dezan.
Lurrerako eginda baldin bagaude,
ez dakit nola bizi gaitezkeen Heriotzarako,
lurraren azalerako eginda bagaude,
nola bizi ahal izango gara lur azpian?
Berrikotik hastea izango al da,
hizkuntza berria,
urrats berriak,
eta hortzaldi berriak?
Hildakoak ere hilko dira?
Umeak hilko dira?

Morir pariendo como las olas

Morir pariendo como las olas / para que el mar perdure. / Si estamos hechos para la tierra, / no sé como
podremos vivir en la Muerte, / si estamos hechos para sobre la tierra / ¿cómo podremos vivir debajo? / ¿Será
empezar de nuevo, / nuevo idioma, / nuevos pasos, / y nuevas denticiones? / ¿Se morirán también los muertos?
/ ¿Habrá mortandad infantil?

Oroitzapenezko lastaira

Guztiok behar baitugu
bakardade puska bat,
kilo bat lantu laño;
inor gabeko logela bat,
eremu mortu bat,
oroitzapenezko lastaira bat
non gustura sufritu ahal izan.

Jergón de recuerdos

Que todos necesitamos / un cuarto de soledad, / un kilo de llanto llano; / una alcoba sin nadie, / un páramo, / un
jergón de recuerdos / donde sufrir a gusto.

Denetik pixka bat edukitzea

Denetik pixka bat edukitzea —ahateek bezala—
igeri eginez, hegan eginez, ibiliz eta arrautzak jarriz,
lurra eta itsasoa edukitzea, neskaxa eta mutiko,
ongia eta gaizkia,
horixe daukagu.

Ez izan gizon edo emakume soilik,
ez izan arima edo gorputza soilik,
ez izan garen bezain gaizkile,
ez izan gerora bezain mamuzko.

Denetik pixka bat edukitzea,
garia, oloa, eta txokoren bat utzi zekalerako.

Tener de todo un poco

Tener de todo un poco —como el pato— / que nada, vuela y anda y pone huevos, / tener de tierra y mar de
niña y niño / tener de bien y mal / eso tenemos. / No ser tan sólo hombres o mujeres / no ser tan sólo alma o
sólo cuerpo, / no ser tan criminales como somos, / no ser tan fantasmal como seremos. // Tener de todo un
poco, / trigo, avena, y dejar un rincón para el centeno.

Badator Absentzia

Badator Absentzia

gu zorriz eta tristuraz betetzera,
gu erretenean hankaz gora sartzera,
gure despentsatik bakea jatera;
badator Absentzia
eta mahaiaren gainean bortxatzen gaitu,
eta hurbiltzen zaigu
bere legenarraren zoldaz gu igurztera,
bere miseriazko geruza astintzen du
eta larriminezko akainak uzten dizkigu
penazko araknidoak.

Badator Absentzia

eta bazka gisa lainoa uzten digu,
hau da, harean itota gu.

Eta desioa ardoz janzten da
eta ardoa penaz
eta pena bakardadez
eta bakardadea tristuraz moxorrotzen da
eta tristura osterak bakardadez,
eta aurreko auzoak ez du ezer ulertzen
inauteri honetaz.

Viene la Ausencia

Viene la Ausencia / a llenarnos de piojos, de tristeza, / a meternos de patas en la acequia, / a comernos la paz de la despensa; / viene la Ausencia / y nos ultraja encima de la mesa, / y se acerca / a rozarnos las costras de su lepra, / se sacude su capa de miseria / y nos deja garrapatas de angustia / arácnidos de pena. / Viene la Ausencia / y nos deja de pasto de la niebla, / es decir, ahogados en la arena. // Y el deseo se viste de vino / y el vino de pena / y la pena de soledad / y la soledad se disfraza de tristeza / y la tristeza otra vez de soledad, / y la vecina de enfrente no entiende / nada de este carnaval.

NOLA LOTU BIBOTEA TIGREARI

Cómo atar los bigotes del tigre, 1969

Higaduraren desdoitzeak

Ikusmena da galtzen lehena,
horregatik dago hainbeste betaurreko,
gero gorrieria ernatzen zaizu ezkerreko oinean,
eta ile urdindutik soilgunea sortu,
haragiak mugitzen zaizkizu potoloa bazara,
argala bazara gontzak karranka hasi,
kapikuek hegan egiten dizute,
apeta galtzen duzu...
ahoko hortz-haginak mugitzen zaizkizu;

horixe gertatzen zaizu maitatzen dakizunean.

Desajuste en el desgaste

La vista es lo primero que se pierde, / por eso hay tanta gafa, / después te quedas sordo del pie izquierdo, / y te nace la calva de la cana, / se te mueven las carnes si eres gordo, / si eres flaco te suenan las bisagras, / se te vuelan los capicúas, / se te pierden las ganas... / se te mueven los dientes en la boca; // cuando sabes amar esto te pasa.

Pipatzen

Hainbeste jenderekin gertatu bezala;
zigarretatik errautsa erori zitzaidan,
atzamar hauexekin oratu nion presaka
ez zezan mahaiko oihala erre,
eta ez nuen ezer hartu

—berorik eta izaerarik gabeko zerbait hotz grisaxka—
hainbeste jenderekin gertatu bezala.

Fumando

Me pasó como con tanta gente; / se me cayó ceniza del cigarro, / apresurada la cogí con estos dedos / para que
no quemase el tapete, / y nada cogí / —algo frío grisáceo que ni quemaba ni era— / me pasó como con tanta
gente.

Hara zein itsusiak diren...

Hara zein itsusiak diren diplodokoak umetan.
Ohar zaitezte gargolen harriak zer tonu hartzen duen maiteminduta daudenean.
Lotu hariak tigrearen biboteari!
Orraztu ezazue deabrua bera!
Elkartu itzazue atso-agureak euren gurasoekin...

Hori bezain ezinezkoa eta posiblea da bakea.

Mirad qué feos...

Mirad qué feos son los diplodocus de pequeños. / Fijaros en el tono que coge la piedra de las gárgolas si están enamoradas. / ¡Atad cabos al bigote del tigre! / ¡Peinad al mismo diablo! / Juntad a los ancianos con sus padres... // Así de imposible y posible es la paz.

Trastornozko alergia logikoak

Ez zaizkit jende horiek gustatzen,
belarri handiak eta oin txikiak dituztenak,
edo beste horiek,
aho handia eta begi txikerrak dituztenak,
edo beste haiek
letra txikiz idazten dutenak,
—bi euli kakaren modukoak «maite zaitut» horiek—.
Ez zaizkit ume zintzoak gustatzen ezta zahar gaiztoak ere,
ezta inork tronpeta jo diezadan ere
—nik onespena eman gabe—.
Era berean ez dut jasaten bere burua
mahastien jabe izendatzen duen hura.
Bai,
baina larruazaleko legena zenbat eta handiagoa izan,
orduan gertatzen da batek bestea hiltzea,
«EZ TIROZ EZ POZOIZ EZ LABANAZ»
(«Trastornozko alergia logikoak» dira,
adinari dagozkionak,
dio Galenok).

Lógicas alergias trastornales

No me gusta esa gente que tiene, / la oreja grande y el pie pequeño; / o ésa, / que tiene la boca grande y el ojo chico, / o aquélla / de letra pequeñita, / —como dos cagadas de mosca en el «te amo». / No me gustan los niños buenos ni los viejos malos, / ni que nadie me toque la trompeta / —sin mi consentimiento—. / Tampoco soporto a aquél / que se autonombra dueño de las cepas. / Sí, / pero cuando más a mí me brota el sarpullido, / es cuando alguien mata a alguien, / «SIN TIRO NI VENENO NI NAVAJA» / (Son «lógicas alergias trastornales», / debidas a mi edad / según Galeno).

Antipoema?

Aintzat hartuta
guztia faltsua eta erridikulua dela;
aintzat,
gauzarik ederrena munstrokeria dela;
aintzat,
nerabeek zizareak izan ohi dituztela
hau da,
 zizareak hildakoek bezala.
Horrela,
 zerotik abiatuta,
zeren eta,
 ezer ez baita segurua,
nik,
 segurtatzen dizuet,
ezen,
 gogoak ematen didana eginda ere,
ez nagoela seguru arrazoia dudarik!

¿Antipoema?

Partiendo de que, / todo es falso y ridículo; / de que, / lo más bello resulta monstruoso; / de que, / los
adolescentes suelen tener lombrices / o sea, / gusanos como los muertos. / Así, / partiendo de cero, / porque, /
nada es seguro, / yo, / os aseguro, / que, / haciendo lo que no me da la gana, / ¡tampoco estoy en lo cierto!

EGONGELAN EGONEAN

Sola en la sala, 1973

Gloriaren gutun esplikagarria

Irakurle maiteok:

Enkusak eta desenkusak eskatzen dizkizuet
eta iradokitzen dizuet barka nazazuela
azken aldian libratu dizkizuedan
eguneko libratze hauengatik.

Zuek baino gehiago penatzen naiz ni
nire poema-lerroek beren ama putaren antza hartu badute;
zuek baino gehiago penatzen naiz ni
erditzean sorrarazi didaten oinazeagatik,
esan nahi dut, hain adoregabe eta esnetsu
sor zitezen eragin zuen zergatiagatik.

Ez naiz pesimista,
denboraleari nekez eusten ahal dion
zain hedatuen sorta naiz.

Ordaintzen didate eta idazten dut,
jotzen naute eta idazten dut,
niri begiratzeari uzten diote eta idazten dut,
gehien maite dudan pertsona beste batekin ikusi eta idazten dut,
egongelan egonean nago, mende luzez, eta idazten dut,
irria sorrarazten diet eta idazten dut.

Halako batean inork maite nau eta idazten dut.
Indiferentzia etortzen zait eta idazten dut.
Guztia berdin zait eta idazten dut.
Ez didate idazten eta idazten dut.
Badirudi hiltzera noala eta idazten dut.

Carta explicatoria de Gloria

Queridos lectores: // Os pido excusas y excusados / y os insinúo que me perdonéis / por estas entregas diurnas / que vengo entregándoos últimamente. // Más siento yo que vosotros / que mis versos hayan salido a su puta madre; // más siento yo que vosotros / lo que me han dolido al salir, / quiero decir, la causa por la que, / me nacieron tan alicaídos y lechosos. // No soy pesimista, / soy un manojo de venas desplegadas / que apenas puede aguantar el temporal. // Me pagan y escribo, / me pegan y escribo, / me dejan de mirar y escribo, / veo a la persona que más quiero con otra y escribo, / sola en la sala, llevo siglos, y escribo, / hago reír y escribo. // De pronto me quiere alguien y escribo. / Me viene la indiferencia y escribo. / Lo mismo me da todo y escribo. / No me escriben y escribo. / Parece que me voy a morir y escribo.

Hildako tximeletadun barnealdea

Hildako tximeletadun barnealdea besaulkian.

Hainbeste lantu laño
herdoilduta ditut nire begien gontzak;
ispiluaren sakonetik
atzo alai begiratzen zidaten
neskatxa nini hauek tipituz doazkit;

botilaren sakonetik
betilun begiratzen didate
iragandako ordu zoriontsuek.

Ez zait aski iragana!

Ez dut nahi iragan dadin!

Eta iraganak azpiratzen nau eta pausatu
eta azkenean nitaz jabetu, *amantis religiosa* batek bezala.

Bazen ere aingeru hobengabe bat
suge batekin sokasaltoan jolasten.

Hori guztia ikusi berri dut
botilaren
sakonaren sakonean.

Interior con mariposa muerta

Interior con mariposa muerta en el sofá. // Oxidadas tengo las bisagras de mis ojos / de tanto llanto llano; / se van empequeñeciendo estas niñas, / que ayer me miraban alegres / desde el fondo del espejo; // desde el fondo de la botella / me miran taciturnas / las pasadas horas felices. // ¡No me basta el pasado! // ¡No quiero que se pase! // Y el pasado me pisa y me posa / y al final me posee, como una amante religiosa. // También había un ángel inocente / saltando a la comba con una culebra. // Todo esto acabo de verlo / en el fondo del fondo / de la botella.

Idazteko dauden dramak

Lehen ekitaldia: Abokatua da gaizkilea.
Bigarren ekitaldia: Medikua da gaixoa.
Hirugarren ekitaldia: Presoa da errugabea.
Laugarren ekitaldia: Jendeak parte hartzen du
eta garrasi egin, Ez dago eskubiderik!
Bosgarren ekitaldia: Bosgarrenak dio ez dezazula hil eta denon artean
egilea erail zuten.

Dramas para escribir

Primer acto: El abogado es el criminal. / Segundo acto: El médico es el enfermo. / Tercer acto: El preso el inocente. / Cuarto acto: Interviene la gente / y grita ¡No hay derecho! / Quinto acto: El quinto es no matar y entre / todos asesinaron al autor.

Fuertes Ipurtargia

Lokatzetan odolusten diren
neska-mutikoez pentsatzen dudalarik,
lotsatu egiten naiz bero bizitzeaz
 bero jateaz
 bero jartzeaz.

Lotsatu egiten naiz zezenketak gustatzeaz.
Lotsatu egiten naiz lagunekin ehizan ibiltzeaz ere.
(Hori arratsaldea hondatzeko modua!)

Eta lotsatu egiten naiz luxuzko poema liburu izateaz
eme larruaz koadernatuta
zenbat gose dagoen kontuan hartuta.

Beti izango naiz literatur zizare bat,
Ipurtargi deitzen badidate ere.

Luciérnaga Fuertes

Cuando pienso en los muchachos / que se desangran dentro del cieno, / me avergüenzo de vivir caliente / de comer caliente / de ponerme caliente. // Me avergüenzo de que me gusten los toros. / Me avergüenzo también de ir de caza con los amigos. / (¡Qué manera de estropear la tarde!) // Y me avergüenzo de ser un libro lujoso de poemas / encuadernado en piel de hembra / ante tanta hambre. / Siempre seré un gusano literario, / por muy Luciérnaga que me llamen.

Eguna sortzen ikusi dut

Eguna sortzen ikusi dut
gaua desjaiotzen
hilketak harilkatzen
mirariak begiztatzen.
Hainbeste ikusi dut guztia
ezen antiojoak ere ez baititut,
soil-soilik poltsikoetan
zigarretarako paper bat.

He visto hacerse el día

He visto hacerse el día / desnacerse la noche / hilvanar asesinatos / milagros vislumbrar. / He visto todo tanto /
que ya no llevo gafas, / tan sólo en los bolsillos, / un papel de fumar.

Zientzia eta pazientzia

Zirkuko elefante guztiok
bihotzeko gaitza dugu,
—beldurragatik entrenatzaileek eragindako
suplizioagatik lan gogorragatik,
otzandu domestikatuak izatera iristeagatik
gure tonak hanka bitan zutik jartzearen erridikuluagatik
Straussen baltsa dantzatzeko—.

Zirkuko mortsa guztiok ere
bihotzeko gaitza dugu,
larratxori batzuen moduan,
gatibu direnean arritmia arraroak jasaten dituztenak,
eta ezkerreko aurikularekin kantatzen dutenak
hegalekin egin orde.

Ciencia y paciencia

Todos los elefantes del circo / padecemos del corazón, / —debido al miedo al suplicio / de los entrenadores al duro trabajo, / a la vergüenza de haber llegado a ser mansos domesticados / al ridículo de poner nuestras toneladas en pie / para bailar el vals de Strauss—. // Todas las morsas del circo / padecemos también del corazón, / al igual que algunas totovías / que en cautividad soportan extrañas arritmias / y cantan con la aurícula izquierda / en vez de con las alas.

GLORIAREN LORIA

Historia de Gloria, 1980

Aitzinsolastxo

Liburu hau egunez egun idatzita dago,
tartekako unetan,
tartekako lagunetan.
Poemok (poema ote dira?)
nahas-mahasean eginak dira,
—ez zaituztet nahas-mahastu nahi—
baina haien idazmoldean bada nolabaiteko
amodioa.
Hau ez da liburu bat, hau emakume bat da.

Prologuillo

Este libro está escrito día a día, / a ratos perdidos, / a amigos perdidos. / Los poemas (¿son poemas?) / no tienen orden ni concierto, / —sé que a veces desconcierto— / pero están escritos con cierto / amor. / Esto no es un libro, es una mujer.

Ostera izan nahi dut

Ostera izan nahi dut naizen eta izan ez nintzen arranoa.
Sinestun nauen aireak
sendotu dezala nire luma...
hegan jarrai dezan, gauez zuei idazten,
gure etsaiak lotan dauden bitartean,
eta nik hegal eragite ariketak egiten ditut
nire amodio berriaren
arreta pizteko.

Quiero volver

Quiero volver a ser el águila que soy y que no fui. / Que el aire en que yo creo / fortalezca mi pluma... / para que siga volando y escribiéndoos por las noches, / mientras nuestros enemigos duermen / y yo hago ejercicios de aleteo / para llamar la atención / a mi nuevo amor.

Arto hibridoari esker

Arto hibridoari esker
amerikarrek lortu zuten diruarekin,
bonba atomikoa ordaindu ahal izan zuten.Denbor

Esanen duzue hau poesia ez dela.
(Konforme nago.)

Con el dinero que consiguieron

Con el dinero que consiguieron / los americanos del maíz híbrido, / pudieron sufragar la bomba atómica. //
Diréis que esto no es poesía. / (Estoy de acuerdo.)

Munstroa

Ni tabernan nengoen,
gizon arrunt bat sartu zen,
nire aurrean jesarri eta
nire gauzetan pentsatzen arretagabe begiratu nion,
—ikaratu nintzen!—
bizitza osoan «maite zaitut» inoiz esan ez izanaren aurpegia zuen.

El monstruo

Yo estaba en el bar, / entró un hombre corriente, / se sentó enfrente, / le miré distraída pensando en mis cosas, /
—¡me espanté!— / tenía cara de no haber dicho «te quiero» en toda su vida.

Ogibidez: ezkongabea

Mundu ez hain txar baten alde
ahal baino gehiago egin nuen,
nire birjintasuna Kausaren alde jarri nuen,
—zenbat eta gutxiago jaio, are gutxiagok sufritu—.
(Barka ezazue nire izena hainbeste aipatzea.)

De profesión: soltera

Por un mundo no peor / hice más de lo que pude, / colaboré con mi virginidad a la Causa, / —cuantos menos nazcan, menos sufren—. / (Perdonad que me autonombre tanto.)

Musika zerutarra

Amodioa izan zen nire irakaslea,
berak erakutsi zidan eskuak zure gorputzean pausatzen,
eta doinua jotzen zenuen, jotzen zenuen
gitarra zerutarra bazina lez.

Música celestial

El amor fue mi maestro, / él me enseñó a poner las manos en tu cuerpo, / y sonabas, sonabas, / como celestial
guitarra.

Ostra bat bezala lagunik gabe

Ostra bat bezala lagunik gabe,
idazteko ostentzen naiz ni.
Egizue kontu bere bakardadean
zuengan pentsatzen duela ostrak
eta gero bere perla ematen dizue
tristuratan eta lagunik gabe egina.

Sola como una ostra

Sola como una ostra, / me escondo para escribir. / Pensad que en su soledad / piensa en vosotros la ostra / y
después os da su perla / hecha en tristeza y a solas.

Poesia dut adierazpide

Poesia dut adierazpide
albait gutxien luzatzeko
albait gehien zuei esaten.

Me manifiesto en poesía

Me manifiesto en poesía / para tardar menos / en deciros más.

Autobio

Prosaz diotsuet:

Inoiz ez nuen dirua eskatu,
ezta janaria, odola edo arropa ere.
Umezain hasi nintzen lanean umetan.
Neure etxean bertan izan nintzen neskame.
(Ni neu izan nintzen nire lehen panpina.)

Gero helduaroan,
maileguan eskatu nuen bakarra
amodioa izan zen,
neurrian gaindika itzuli nuen,
orain arruinatuta nago.

Autobio

Os digo en prosa: / Nunca pedí dinero, / comida, sangre o ropa. / Empecé a trabajar de niña de niñera. / Fui la criada de mi casa propia. / (Yo misma fui mi primer muñeca.) // Luego de mayor, / lo único que pedí prestado / fue amor, / lo devolví con creces, / hoy estoy arruinada.

Bakea

Zer gertatzen da herri palestinarrarekin?
(zin egiten dizuet politikaz ez dudala ulertzen).
Armak modernoak dira,
zauriak zaharrak.
(Zin egiten dizuet ez dudala ulertzen..., sufritu besterik ez.)
«Gerra humanizatzea» aipatzen dute.
Nola humanizatu inhumanoa dena,
edo nola bihurtu minbizia larruazalaren apaingarri?

Paz

¿Qué pasa con el pueblo Palestino? / (os juro que no entiendo de política). / Las armas son modernas, / las heridas antiguas. / (Os juro que no entiendo..., sólo sufro.) // Se habla de «Humanizar la guerra». / ¿Cómo poder humanizar lo ya inhumano, / o cómo hacer del cáncer un adorno en la piel?

Gaztela ezpata bat da

Ez dut ohitu nahi itsasorik gabe bizitzera.

Ohitu beharko ote dut

inork ez nazan zaindu?

(Jada urte asko daramazkit bakardadeko satorra izaten.)

Zertarako balio dute milioika lagun-ezagunek,

bakarrean bakar-bakarrik oheratu behar badut?

Zertarako balio du ospeak, entzute handiko izateak

bakarrean bakar-bakarrik moldatu behar badut?

... ..

(Kriseilua piztera noa.)

Beldur naiz ez ote dudan sinetsiko amodioa

neuk asmatutako poema bat besterik ez dela.

Castilla es una espada

No quiero acostumbrarme a vivir sin el mar. / ¿Tendré que acostumbrarme / a que nadie me cuide? / (Ya llevo muchos años de topo en soledad.) / ¿De qué valen millones de amigos-conocidos, / si sólo sola y sola me tengo que acostar? / ¿De qué vale la fama, la popularidad, / si sólo sola y sola me tengo que apañar? /
... .. / (Voy a encender el candil.) / Tengo miedo, de creer que el amor / es tan sólo un poema inventado por mí.

Malko baten osaketa (poema zientifikoa)

Malko bat eta itsas tanta bat
aztertzerakoan,
laborategikoek ez zuketen jakingo zein den zein.

(Malkoaren osagaiak ura eta gatzak dira,
urez eta gatzaz osatua da itsas tanta ere.)

Baina makina bat entzima ere badaude
—azukrea, proteinak—
eta horiek denek gaixotasunak akabatzen dituzte.
Hala ere, makina asko entzima egon ezkerro, kalte.

Kopuru handian ere,
itsas tanta askok ito egiten zaituzte,
amodiozko malko askok ito egiten zaituzte.

Jarraitzen dut —eta irakurlea ez dadila harritu—,
malkoa aztertu ezkerro jakiten ahal da
emakumearena edo gizonarena ote den.
Eta horretaraxe nindoan,
eta horrexegatik da,
baita oinazeen ere
azaleratzen da sexua.

Composición de una lágrima (poema científico)

Al analizar una lágrima / y una gota de mar, / el del laboratorio no sabría cuál era cuál. // (Una lágrima se compone de agua y sal, / de agua y sal igual se compone una gota de mar.) // Pero encima están las enzimas / —azúcar, proteínas— / ambas exterminan la enfermedad. / Claro que, si hay mucha enzima encima, malo. // También en gran cantidad, / muchas gotas de mar te ahogan, / muchas lágrimas de amor te ahogan. // Sigo —y que el lector no se asombre—, / analizando la lágrima se sabe / si es de mujer u hombre. / Y es a lo que iba, / y es por eso, / que hasta en el dolor / se manifiesta el sexo.

Beltzaren kantua

Beltza jaio nintzen, Hego Afrikan libre,
beltza bizi naiz, Ipar Amerikan libre.
Zuriek askatasuna kendu zidaten
baina ezin izan zuten nire larruaren kontra,
beltza segitzen dut, Ipar Amerikan libre.

Hego Afrikako nire aitona-amonek
nire emaztearen sabelean
nire seme-alaben ilea kizkurtzen dute oraindik.
Beltza jaio nintzen, Hego Afrikan libre,
orain herritar iparramerikarra naiz.

Segitu behar dut fuerte izaten, beltz eta libre
eta nire seme-alabei inoiz ez kontatu beren lagunak
esklabo egin nindutenen birbilobak direla.

Canción del negro

Yo nació negro y libre en África del Sur, / yo vivo negro y libre en la América del Norte. / Los blancos me quitaron la libertad / pero no pudieron contra mi piel, / yo sigo negro y libre en la América del Norte. // Mis abuelos del África del Sur / aún rizan el cabello de mis hijos / en el vientre de mi mujer. / Yo nació negro y libre en el África del Sur, / ahora soy un ciudadano norteamericano. // Tengo que seguir siendo fuerte, negro y libre / y nunca contar a mis hijos que sus amigos / son biznietos de los que me hicieron esclavo.

Afrika

Batzuetan pentsatzen dut beltzak lutoz doazela
haientzat Jainkoa hil egin delako.

África

A veces pienso si el negro va de luto / como si Dios se hubiera muerto para él.

Baieta bat bezalakoa sentitzen bazara

Baieta bat bezalakoa sentitzen bazara
zigarrokin bat bezalakoa
oskol bat bezalakoa,
ez ezazu zure tristura ureztatu,
ez da existitzen zure porrota
 (harena da porrota!),
bera garbitzeko erabili zintuenarena
gero baieta zaharraren moduan botatzeko,
zure energia zurrupatu zuenarena,
zutaz gozatu eta zapaldu zintuen, zigarrokin erabiliaren moduan;
zure fruituari hozka egin
eta zugandik gelditu zena bota zuenarena
belusezko oskol zuritu eta barregarria.

Baldin eta baieta,
 zigarrokina
 edo eskola
bazara,
erein ezazu zeure buruarengan!
Eta oster a loratu zaitez margolan batean
poema batean,
eta, eskola izatekotan,
ume goseti batentzako jaki goxoan.
(Horrelaxe egin nuen nik.)

Si te sientes como una bayeta

Si te sientes como una bayeta / como una colilla / como una cáscara, / no riegues tu tristeza, / no existe tu fracaso / (¡El fracaso es el suyo!) / el del que te usó para limpiarse / y te tiró como bayeta vieja, / el que aspiró tu energía, / te disfrutó y pisó, como a colilla usada; / el que mordió tu fruto / y tiró lo que quedó de ti / la monda y lironda cáscara de terciopelo. // Si eres bayeta, / colilla / o cáscara / ¡siémbrete en ti! / Y vuelve a florecer en un cuadro, / en un poema, / o si cáscara, / en el manjar de un niño hambriento. / (Así hice yo.)

Suaren garretan egiten dut olgeta

Suaren garretan egiten dut olgeta
baina josteta dut olgeta.

Juego con fuego

Juego con fuego / pero juego.

Eman dezagun

Eman dezagun:

Amodioaren esperoan nengoen
eta azkenean iritsi egin zen bera,
hobe esanda,
bera gabeko begi batzuk iritsi ziren,
eta bertan gelditu nintzen.

Vamos a suponer

Vamos a suponer: / Al amor yo le esperaba / y por fin llegó él, / mejor dicho, / llegaron unos ojos sin él, / y me quedé.

Amazona bihozbera

Zenbait oinazeren aurrean
beira bihurtu ohi naiz.
Ez nazazu horrela kolpatu,
ebakia egin dezakezu eta!

Hauskorra naiz
zenbait oinazeren aurrean
—kraskatzen ahal naiz—
ni, fuerte naizen hau
—fuerterarren askazitik bainator—,
amazona bihozbera,
badut gune bat,
hemen, nire arkua bermatzeko
erabiltzen dudan ezkerreko aldean
—euriarekin eta
atzaparkadekin zaurgarri—.

Amazona bihozbera,
deituraz soilik fuerte,
beira bihurtzen dena
zenbait oinazeren aurrean.

Tierna amazona

Ante cierto dolor / me vuelvo vidrio. / ¡No me golpees así, / puedes cortarte! // Soy frágil / ante cierto dolor /
—puedo romperme— / yo, la fuerte / —que de los Fuertes vengo— / tierna amazona / tengo una zona, / aquí
en el lado izquierdo / donde apoyo mi arco / —vulnerable a la lluvia / y al zarpazo—. // Tierna amazona /
fuerte, de nombre sólo, / vidrio / ante cierto dolor.

Udaberriko talka (eriondoa)

Arima dislokatuta
eta bihotza igeltsatuta
hemen nire eriondoan deskubritu dut
onena ez dela menturaz inoiz menturatzen.

Medikuak dio ez duela nirearekin asmatzen,
badudala Ia-inor bat
eta Ia-inor-ez bat;
agian atsedenaldi bat hartuta
arima dislokatua bere onera itzuliko dela
eta igeltsatutako nire bihotzak
ez duela gainezka egingo berriz elkartzen garenean.

—Niri, apetituari galga jartzea
laket ez dudanez,
oso arraroa iruditzen zait
tratamendu hori—.

«Bisitak» onartu dizkirate,
baina axolagabe begiratu behar omen diet.
(Hau istripu zorigaiztokoa!)

Niretzat hobe beso bat hautsi banu
—ferekatzeko erabiltzen dudan horixe balitz ere—,
baina inork ezin du bere zauria hautatu
udaberriko talka batean.

Choque en primavera (convalecencia)

Con el alma dislocada / y el corazón escayolado / aquí en mi convalecencia he descubierto, / que a lo mejor lo mejor no existe. // Dice el doctor, que no da con lo mío, / que tengo un Casi-alguien / y un Casi-nadie; / que tal vez con reposo / el alma dislocada vuelva a lo suyo / y que mi corazón con la escayola / no podrá desbordarse en el reencuentro. // —A mí, que no me va / frenarme el apetito, / me parece muy raro / el tratamiento—. // Me están permitidas las «visitas», / pero he de miraras como si tal cosa. / (¡Qué fatal accidente!) / Hubiera sido mejor romperme un brazo / —aunque fuera el que uso para acariciar—, / pero nadie puede escoger su herida, / tratándose de un choque en primavera.

Ur tanta (autobiografia)

Ez dakit nola ur tanta bat
bihurtu ahal izan zen arrasto,
suharria bigundu,
lur barrunbe makurretan
goroldio ilunak ferekatu,
argira itzuli,
gizon bihurtu —iturbegi—
edo emakume —errekasto—
eta gero ibai bihurtu
edo gero ur-jauzi izatera heldu
(halako batean zutik jartzea otu zitzaiolako),
eta osterá,
berriro ere itsasadar izan —leun eta samur—
eta itsaso izatea erdietsi.

Ez dakit nola ur tanta batek
hainbeste lortu ahal izan zuen.

Oraingoan badakit,
ur tanta hori malkoa zen.

La gota de agua (autobiografía)

No sé cómo una gota de agua / pudo hacerse hilillo entre las grietas, / ablandar pedernales, / acariciar musgos
lóbregos / en cavidades siniestras, / volver a la luz, / hacerse un hombre —manantial— / o una mujer —
arroyo— / y luego hacerse río / o llegar a cascada, / (porque de pronto le dio por ponerse en pie), / y después, /
volver a ser ría —suave y tierna— / y conseguir ser mar. // No sé cómo pudo una gota de agua / llegar a tanto.
// Ahora sí lo sé, / la gota de agua era una lágrima.

Autobio

Nire lehen laguna,
inoiz izan ez nuen panpina izan zen.
Nire lehen belarritakoak,
belarrietako bi ospel izan ziren (esana nizuen lehendik).
Nire lehen jostailua, idazteko makina bat
(alokatua), zeinarekin beharra egiten bainuen
helbideak kopiatuz,
gutun-azal bakoitzeko zentimo bat ordaintzen zidaten.
Batzuetan duro bat lortzen nuen egunean.
Nire begiek gosearen usaina zuten
eta ezinezko trizikloekin egiten nuen amets.
Nire neba-arrebek sandaliak janzten zituzten,
zapatilak erosten zizkidaten niri.

Autobio

Mi primera amiga, / fue una muñeca que nunca tuve. / Mis primeros pendientes, / fueron dos sabañones (ya os lo dije). / Mi primer juguete, una máquina de escribir / (alquilada), con la que trabajaba / copiando direcciones, / me pagaban un céntimo por cada sobre. / A veces me sacaba un duro al día. / Mis ojos olían a hambre / y soñaban con triciclos imposibles. / Mis hermanos llevaban sandalias, / a mí me compraban zapatillas.

Neure buruari oharra

Gloria, ez zara molusku bat
beste leku egokiago batera
lekualda zaitezke;
orban beltzak mantso egiten du aurrera
(milia bat orduko).
Gloria, haizea geldiaraz dezakezu zuk,
edota erabil itzazu... zure zakatzak, izan zaitez arrain,
arrain hotz,
lehen aldikotz.

Nota a mí misma

Gloria, no eres un molusco / te puedes desplazar a otro lugar / más adecuado; / la mancha negra avanza lenta / (a una milla por hora). / Gloria, tú puedes parar al viento, / o usar tus... agallas, hazte pez, / frío pez, / por primera vez.

Osasun azterketa

Medikuak dioenez, alergia diet arrunkeriari,
polenari eta poliziari.
Orobat medikuak deskubritu du
nire sistema mentala
bereziki sentibera dela
elektrizitate atmosferikoarekin
eta lur mailan ioi positibo
(edo auskako zer) gehiegi daudenean
nire sareetan
zirkuitulabur ziztatzaileak gertatu ohi direla.
Asegururik ez dudanez soseguan dagoen tokia errezetatu zuen,
bebingo malapartatu batean gorputzaz arduratzeko
eta arimaren matraka hori alde batera uzteko.

Chequeo

Dice el médico que tengo alergia a la vulgaridad, / al polen y a la policía. / También ha descubierto el doctor /
que mi sistema mental / es especialmente sensible / a la electricidad atmosférica / y que cuando abundan los
iones positivos / (o no sé qué rollo) a nivel del suelo, / se me producen cortocircuitos punzantes / en mis redes.
/ Como no tengo seguro recetó un lugar en calma, / que me preocupe de una puñetera vez del cuerpo / y me
deje de tanta alma.

Gero idatzi ahal izango ez dudan poema

Lurra baino beste ezer
dastatu ahal izango ez dudanean,
gizon dorpe batek eman diezadala koilarakada
(ogibidez lur-emaile) palakada,
ahoa hortxe lurrez betea izanagatik,
maitemindurik eutsiko diot erreztatzeari:
Maite izan zintudan eta oraindik ere maite zaitut,
bizirik nengoela maite izan zintudan
eta gaur guztiz hilik egonda ere
nire ahotsaren hoskerak
zure atean dagi kox-kox.
Sentitzen dut, horrelakoa naiz,
nire ekinean apur bat gogaikarri.

Poema que luego no podré escribir

Cuando no tenga nada que catar / más que la tierra, / que un hombre rudo me dé la cucharada / (de oficio enterrador) la paletada, / aún con la boca así llena de tierra, / seguiré recitando enamorada: / Te quise y aún te quiero todavía, / toda viva te amé, / y hoy toda muerta / el timbre de mi voz / llama a tu puerta. / Lo siento, soy así, / algo pesada.

Larrialdiko autorretratua

Betzuloak ez ditut hain hanpatuak,
begiek areagoko distira dute eta handiagoak dira,
begiratzen ikasi dute —ordu gutxiko kontua—
arratsaldez tristeago izan ohi ditut.
Igeri egiterakoan gutxiago nekatzen naiz. Zabaldu,
hartu eta berrartu egiten ditut haren esku hezeak
—zoragarriak dira—
hatzez eta iragarpenez beteta daude.
Hazteria daukat belarrietan
jaberik gabeko katuek bezala.
Nire zintzur sagarra izan zitekeenaren azpian,
lepoko baten gisan,
zimur bat hazten da
nire iragana gillotinatzen duena.

Autorretrato de urgencia

Tengo menos ojeras abultadas, / los ojos brillan más y son más grandes, / han aprendido a mirar —cuestión de horas— / se me ponen más tristes por la tarde. / Me canso menos al nadar. Tiendo, / cojo y recojo sus manos húmedas / —son maravillosas— / están llenas de dedos y presagios. / Aún tengo «aristín» en las orejas / como los gatos sin amo. / Bajo lo que hubiera podido ser mi nuez, / a modo de collar, / crece una arruga / que guillotina mi pasado.

Gorabeherak zure isilpeko bihotzean...

Gorabeherak zure isilpeko bihotzean...
Hotzean manipulatzeko dituzu zure orduak...
Une oro alde egiten duzu kolpetik,
harea mugikorra,
ez duzu balio egarritako
zu edukitzea saski batean ura edukitzea da.
Zure arropa neuk utzia da
eta biluzik gelditu nintzen,
honela ezin dut bidea egin,
guztizko tunika da premiazkoa,
pentsatzen nuen emango zenidala zaku hutsa izanda ere.
Amodioari ezin zaizkio oihala ebakinak eman.

Altos y bajos en tu corazón furtivo...

Altos y bajos en tu corazón furtivo... / Manipulas tus horas fríamente... / Te vas a cada rato de repente, / arena movediza, / para la sed no vales / tenerle es poseer agua en un cesto. / Yo te presté la ropa / y me quedé desnuda, / así no puedo caminar, / es menester la túnica completa, / pensé me la darías aunque fuera de saco. / Al amor no se le pueden dar retales.

Etxekoandrea

Jaikitzen naizelarik, bai, arima garbitzen dut
eta bihotza zabaltzen dut haizeberritu dadin
alderik alde, besoak ere zabaltzen ditut
eta argiari irribarre egin, penak eskobatzen ditut,
eltzekumeak jasotzen ditut —oroitzapenak—,
bart idatzitako otoitzak otoizten ditut
eta gaur izango dudan hitzordua prestatu.

Ama de casa

Al levantarme, sí, me lavo el alma / y abro el corazón para el ventile / de par en par, también abro los brazos /
y sonrío a la luz, barro las penas, / recojo los cachorros —los recuerdos—, / rezo rezos que escribo por la
noche / y preparo la cita para el día.

Aurkitutako poema

Zure maindireen argirik gabe lo egiten dut elurretan,
—burkoak badu oraindik zure ilearen usaina—
ezer ez da berdín —elkarrekin begiratzen ez badiogu—;
oraintxe ahantziko zaitut eta banator bueltan berehala.

Berehala bueltatzen naiz zu hainbeste oroitza,
ezen edozer begiratuta ere zu ikusten baitzaitut.

Zure izena otoizten dut. Ispiluan izendatzen zaitut,
nire edontzia apurtzen dut, mendira igotzen naiz
zuri poemak errezitatza.

Arrazoiz egiten dut negar
ziorik gabekoa da nire irria
errekako edo itsasoko ura
lantuzkoa edo lakukoa,
ura edan nahi dut,
baina zure ahotik.

Poema encontrado

Duermo en la nieve sin luz de tus sábanas, / —la almohada sigue oliendo a tu pelo—; / nada es igual —si no lo miramos juntos—; / voy a olvidarte y enseguida vuelvo. // Vuelvo enseguida a recordarte tanto, / que mire lo que mire allí te veo. // Rezo tu nombre. Te nombro en el espejo, / rompo mi copa, subo a la montaña / a recitarte versos. // Lloro con causa / sin motivo río / agua de río o mar / de llanto o lago, / agua quiero beber, / pero en tu boca.

Errespetu osoz diot

Errespetu osoz diot:
ez dut hilondoko omenaldietan parte hartzen,
ez dut hori ontzat ematen,
biziei ez-ikusiarena egin
eta hilei, aldiz, jaramon.

Con todos mis respetos

Con todos mis respetos: / No participo en homenajes postumos, / no admito eso, / de ignorar a los vivos / y atender a los muertos.

Neure burua maite dut

Neure burua maite dut.
Neu naiz nire alaba,
eta erabaki nuen umezurtz ez izatea.

Me quiero

Me quiero. / Yo soy mi hija, / y decidí no quedarme huérfana.

Denbora-pasa

Soldaduskan ikasi nuen irakurtzen
eta hamahiru urterekin hasi nintzen amodiozko gutunak idazten.
Gozatu, berandu gozatu nuen.
Bost aldiz izan naiz zoriontsu
(ez da harrokeria).

Aurreko bost poema-lerroetan gezur bakarra dago.
Badakizue zein?

Pasatiempo

Aprendí a leer en la «mili» / y empecé a escribir cartas de amor a los trece años. / Gozar, gocé tarde. / He sido cinco veces feliz / (no es alarde). // En estos cinco versos sólo hay una mentira. / ¿Sabéis cuál es?

Autoeutanasia sentimentala

Bazter utzi nuen neure burua
trabarik ez egiteko,
poema kexadun gehiago
oihuz gora ez esateko.
Egun luzez izan nintzen idatzi gabe,
zuek ikusi gabe,
lantua ez beste ezer jan gabe.

Teilatura igo nintzen,
eta penaz beste egin nuen bizitza
eta bazter utzi nuen bizitzaren pena
heriotza geldo hura saihestearren,
ero moduan ez sufritzeko
ia batere ilusiorik gabe.

Moralki justifikatua egon zen
bizitza hobe batera igaro nendin
—beste bat izatera igaro nendin—
medikuen laguntzarik gabe
edabe erotikoen beharrik gabe.

Trastelekuan utzi nituen
nire neuralgia, nire betzuloak
eta nire infartu goiztiarra.
Ondoren,
hilerri-liliak bidali berri zizkidan
ezezagun bat telefonatu nuen.

Autoeutanasia sentimental

Me quité de en medio / por no estorbar, / por no gritar / más versos quejumbrosos. / Me pasé muchos días sin escribir, / sin veros, / sin comer más que llanto. // Me subí a la azotea, / y me quité la vida de la pena / y me dejé la pena de la vida / para evitar aquella muerte lenta, / de sufrir a lo loco / sin ilusión apenas. // Estuvo justificado moralmente / que pasara a mejor vida / —que pasara a ser otra— / sin ayuda médica / ni potingues eróticos. // Dejé en el guardamuebles / mi neuralgia, mis ojeras / y mi precoz infarto. / Después, / llamé por teléfono a alguien desconocido / que me acababa de enviar caléndulas.

Espainia

Mila urtez bakardadea,
bi mila urtez akueduktua,
hiru mila urtez Cuenca,
lau mila urtez ehiztariak,
bost mila urtez margolanak.
Izu-laborrizko berrogeita bost hilabete.
Eta Lurrean gertatu bezala
ur gehiago dago lurra baino.
Negar-lantua ote?

España

Mil años de soledad, / dos mil años de acueducto, / tres mil años de Cuenca, / cuatro mil años de cazadores, /
cinco mil años de pintura. / Cuarenta y cinco meses de espanto. / Y así como en la tierra / hay más agua que
tierra. / ¿Será llanto?

BULAR POEMADUN EMAKUMEA

Mujer de verso en pecho, 1995

Eskaleen sekta

Madriren asko daude.
(Orain indigente deitzen diete.)
Lau mila eskale daude,
emakume eskaleak ere badaude.
Eskatu ere ez dute jada egiten.
Ez dute familiarik,
ez dute lagunik,
ez dute deus ere.
Batzuek arrazoimena galdu dute,
bestetziek arrazoimena ez beste guztia galdu dute.
Gosea pasatzen dute
hotza pasatzen dute
bakardadea pasatzen dute
oinazeak pasatzen dituzte
semaforoak gorriz pasatzen dituzte.
Mortadela eta sardinak jaten dituzte,
upeleko koñaka edaten dute
eta kartoiko ardo merkea.
Kartoizko kaxetan egiten dute lo
(kartoizko katabutak).
Neguan hotzez hiltzen dira
edo bihotzekoaz,
(baten batzuk hiesaz).
Beste batzuk beste eskalaren batek hilda hiltzen dira.
Abendua da.
Eskaleak irten egin dira
euren kartoizko hilobietatik
eta gabon kanta aireratu dute
Erredentorea jaio delako.
—Jesus Haurra ezkaratz batean jaio zen,
beste ezkaratz batean hiltzen gara gu.

La secta de los mendigos

En Madrid hay muchos. / (Ahora les llaman indigentes.) / Hay cuatro mil mendigos, / también hay mendigas. / Ya ni piden. / No tienen familia, / no tienen amigos, / no tienen nada. / Algunos han perdido la razón, / otros han perdido todo menos la razón. / Pasan hambre / pasan frío / pasan soledad / pasan dolores / pasan semáforos en rojo. / Comen mortadela y sardinas, / beben coñac de barril / y vino barato de cartón. / Duermen en cajas de cartón / (ataúdes de cartón). / En invierno mueren de frío / o de corazón, / (algunos de sida). / Otros mueren porque les mata otro mendigo. / Es diciembre. / Los mendigos han salido / de sus tumbas de cartón / y han cantado un villancico / porque nace el Redentor. / —El Niño Jesús nació en un portal, / nosotros morimos en otro portal...

Autobio

Esan zidaten:

—Edo gurdira igotzen zara
edo gurdiari bultza egin beharko diozu.

Ez nintzen igo ezta bultza egin ere.
Bide bazterrean jesarri nintzen
eta nire inguruan,
behar zuen garaian,
mitxoletak sortu ziren.

Autobio

Me dijeron: / —O te subes al carro / o tendrás que empujarlo. // Ni me subí ni lo empujé. / Me senté en la
cuneta / y alrededor de mí, / a su debido tiempo, / brotaron las amapolas.

Presa

Presak ez du esperantzan sinesten
goiz jaiki eta bila hasten da...
Ez daki itxaroten edo geldirik egoten,
insomnioak jota dago presa,
presa izatera kondenaturiko presa
goizean goizeroko presa duen presa
presak huts egiten du eta huts eginarazten dizu
presarekin ez zara inoiz ailegatzen.

La prisa

La prisa no cree en la esperanza / se levanta temprano y va a la busca... / No sabe esperar ni estarse quieta, /
padece insomnio la prisa, / la prisa condenada a tener prisa / la prisa con su prisa mañanera / la prisa se
equivoca y te equivoca / con prisa nunca llegas.